

LITERATUR LEHIAKETA 2018

ORIO



ESKOLA-UMEEN

LITERATUR LEHIAKETA 2018

ORIO



Azala: Saioa Basurko
Legezko gordailua: SS 477/88
Inprimaketa: Bizker grafikak (Lasarte-Oria)

Aurkibidea

Hitzaurrea. Mikel Iruretagoiena	5
Lagunak. Martin Fernandez	7
Familia. Xuban Ostolaza	7
Egiptoko mundua. Julen Altuna	9
Joxemari arrantzalea eta izurdea. Oier Iruretagoiena	11
Nire lagun maitea. Mikel Orzaiz	13
Urtaroak. Nahia Uranga	13
Espirituen kondaira. Maddi Andres.....	15
Gazteluko maitagarria. Marina Gaztañazpi	19
Zergatik? Ane Alberdi	25
Matxinsaltoa festarik festa. Amaiur Sukia	27
Mikel eta altxor ezkutua. Julen Saez.....	29
Zeruko itsasoa. Amaiur Sukia	31
Munduko herriak. Jokin Iruretagoiena	33
Nire anaia txikia. Malen Lertxundi	35
Hiru desioak. Itsaso Ayerbe	37
Abentura mendian. Kattalin Zinkunegi	47
Nire ametsa. Ines Duran	51
Pilota. Enaitz Oliden	51
Paititi: inken sekretua. Oier Amilibia	53
Desioen putzua Aitzol Carrera.....	61
Maitasun katea. Nora Bereziartua	65
Formaz aldatu. Nahia Stafa	67
Tasmaniako deabrua. Unai Sarasua	69
Lurraren amaiera. Maxe Zinkunegi	73
Kopa. Olatz Aizpurua.....	75
Kaixo, maitea. Sara Mujika	77
Egun grisa. Malen Albeniz	79
Bidaian. Miren Genova	85
Gure bizitzaren bidea. Nahia Altuna	89
Zelako maltzurra maitasuna! Alba Moreno	93
Maiene. Elene Ostolaza	95
Zoriak erabakiko du. Irati Vivas	99

Hitzaurrea

Teknologiaz gainezka daukagun mundu honetan hitzaurre bat egitera noa Orioko eskola-umeen literatur lehiaketari, ia inork irakurriko ez duela jakinda —aitortu beharra daukat neronek ere hitzaurre mordoxka bat saltatu ditudala liburuaren mamiari lehenbailehen heltzeko antsiatz—. Izan ere, liburua irakurtzeko gogoia pizteko behar lukeen hitzaurrea, askotan, irakurle zuhurtziagabeak uxatzeko adreilua suertatzen baita. Ez naiz gehiegi luzatuko.

Teknologiaz gainezka daukagun mundu honetan dena egina datorkigu. Telebista edo ordenagailua piztu eta bertan dugu behar dugun guztia. Horregatik pentsatu izan dut askotan hobe litzatekeela, arkatza eskuetan, paper zuri baten aurrean esertzea. Literatura da gure ametsak egia bihurtzen dituen, abentura ezinezkoak errealitate egiten dituen, gure barruko poz eta negarrak ulertzen laguntzen diguna, gure sormenak kaiolatik irteteko behar duen leihoa, aske bizi garen lurralde bakarra.

Teknologiaz gainezka daukagun mundu honetan zorionak eman behar dizkizut, irakurle zuhurtziagabe hori, honaino iristeagatik eta, batez ere, liburu bat irekitzen ausartzeagatik. Ondoren datorrena Orioko haurren sormen amaigabearen fruitua da, labetik atera berria, zuretzat egina. Gozatu ezazu!

Mikel Iruretagoiena

Lagunak

Mateo nire laguna da,
oso maitagarria eta benetako laguna,
oso ondo pasatzen dut berarekin eguna,
biok batera jolas eta jolas egunero parkean.
Mateo eta biok gara lagunak benetan,
espero dut betiko izatea.

Martin Fernandez

Familia

Maite dut nire familia,
ematen didazue bizia
eta zuek zarete nire argia.
Daukadanean egun tristia,
alaitzen didazue aurpegia.
Horregatik, zuentzako nire olerkia.

Xuban Ostolaza



Nagore Faro

Egiptoko mundua

Bazen behin faraoi bat, oso berekoa zena eta piramidearen goialdean bizi zena. Nobleak bere lagunik onenak ziren, baina esklaboak oso gaizki tratatzen zituen.

Egun batean esklabo guztiak faraoiarengana joan ziren eta esan zioten:

—Utzi hemen gelditzen edo bagoaz.

Eta faraoiak esan zuen:

—Nahi baduzue, joan denak; baina ez zarete bizirik aterako. Gainera, zuek joaten bazarete, beste esklabo batzuk segituan lortuko ditut, nire aginduetara egon daitezen.

Orduan esklabo denak joan ziren Nilo ibaira eta krokodiloak agertu ziren. Ia denak jan zituzten eta bizirik zeudenak korrika ihes egin zuten eta, bide erdian, Ra eta Isis agertu ziren eta esan zuten biek:

—Seinalatzen duguna hurrengo faraoia izango da.

Eta Rak esan zuen:


—Hauxe izango da geroiko faraoia! —mutiko bat behatzarekin seinalatuz.

Mutiko hura piramidera joan zen eta eskatu zuen esklabo denak libre egotea eta pertsona guztiak berdin tratatzea.

Azkenik, faraoi bihurtu zen mutiko hura eta gerra bat egon zen haren aldekoen eta lehengo faraoiaren aldekoen artean. Faraoi berriaren taldeak irabazi zuen; baina pena izan zen mutikoa hil egin zela. Orduan esklaboek, haren omenez, lan bat egin zuten: obeliskoak eraiki zituzten bere piramidearen aurrean, beren faraoiarengana espiritu txarrik ez sartzeko. Obra hura bukatu zutenean, Egipton ez zen inoiz gehiago esklaborik egon, faraoi berriak horrela agindu zuelako hil aurretik.

Horregatik, aurrerantzean pertsonak ez zuten lanik egin besteentzat modu txarrean, ordura arte bezala.

Julen Altuna



Mariana Arellano

Joxemari arrantzalea eta izurdea

Egun batean Joxe Mari arrantzalea itsasora joan zen eta arrain batzuk harrapatu zituen: 6 txistu, 7 dontzeila eta 8 itsas kabra. Handik gutxira izurde bat agertu zitzaion. Izurdeak arrainak berari bueltatzeko eskatu zion eta Joxe Marik eman egin zizkion.

Gero, Oriora bueltatu zenean, esan zuen ez zuela ezer harrapatu. Bere lagunak haserre zeuden; baina Joxe Mari pozik zegoen izurdeari lagundu izanagatik. Hurrengo egunean berriz itsasora joan zen eta ekaitz batek bere txalupa hondoratu egin zuen. Izurdeak ikusi egin zuen eta, berehala, ahoarekin heldu zion Joxe Mariri eta Oriora eraman zuen. Ondoren, Joxe Mari esnatu egin zen eta izurdea joaten ikusi zuen.

Egunetan Joxe Marik ezin izan zuen irribarrea ahotik kendu.

Oier Iruretagoiena



Lazaro Roig

Nire lagun maitea

Nire lagun maitea,
beti nirekin jolasten,
beti laguntzeko prest,
beti alaitzeko prest.

Nire lagun maitea,
elkarrekin egoten garenean,
poza sentitzen dut
nire bihotzean.

Nire lagun maitea,
gure adiskidetasunak iraungo du
merezi duelako, benetakoa delako,
lagunak betiko.

Mikel Orzaiz

Urtaroak


Uda da eta bero handia egiten du.
Zer ondo!
Itsasoan igeri egingo dut.

Udazkena da eta haize handia egiten du.
Zer ondo!
Nire kometak hegan egingo du.

Negua da eta hotz handia egiten du.
Zer ondo!
Etxean geratuko naiz suaren epelean.

Udaberria da eta eguraldi ederra egiten du.
Zer ondo!
Kalera irtengo naiz lagunekin jolastera.

Nahia Uranga



Alba Rueda

Espirituen kondaira

Oribarzar hondartzako Txurruka aterpetxean zazpi neska-mutilek ezagutu dute elkar: Ixone, Aitor, Oier, Amane, Aiert, Jone eta Itxasok.

Ixone oso berritsua eta alaia da. Aitorri irakurtzea eta esploratzea asko gustatzen zaio. Oierrek matematika atsegin du eta futbolari ona da. Amaneri, berriz, zaldian ibiltzea eta kirola egitea gustatzen zaio. Aiert baserri batean bizi da eta bere aitari soroan laguntzen disfrutatu egiten du. Jone antzerkilaria da eta magia egiten iaioa. Eta, azkenik, Itxaso aberatsa da eta oso kapritxosoa, baina baita eskuzabala ere eta munduan zehar bidaiatzea atsegin du.

Txurrukako udalekuan daudela, ilargi beteko gau batean, zazpi neska-mutilak ouija batekin ari dira, Nolitzemarrek aurten zein neska-mutil eramango duen jakin nahian. Ez al dizuet esan nor den Nolitzemar? Nolitzemar espiritu gaizto bat da eta, kondaira batek dioenez, urtean behin haur bat eramaten du udalekuetatik infernura betiko.

Ba, hasi dira ouijarekin, ea zein eramango duen jakin nahian. Oholaren bitartez, jakin dute Jone izango dela. Baina ouijak ez du hori bakarrik erantzun; dirudienez, beste izen bat ere ageri da: Aitor. Aitor zeharo beldurtu da.

—Ezinezkoa da! Ezinezkoa! —oihukatu du Aitorrek beldurturik.

—Lasai, Aitor, lehendabizi ni eramango nau Nolitzemarrek! —erantzun dio Jonek dardarka.

—Baina zergatik bigarrenago bat? Zertarako agertu da zure izena, Aitor? —galdetu du Itxasok misteriotu.

—Hau ikertu beharra dago —gehitu du Oierrek.

Ouija martxan jarri da berriro eta erantzuna ematen hasi da. Guztiak adi-adi jarri dira. Ouijak adierazi du Aitor aukeratu duela Nolitzemarri aurre egiteko.

—Nik ezin diot aurre egin Nolitzemarri! Oso indartsua da! —esan du Aitorrek harriturik.

—Ba nik ez dut beldurrik —esan du Ixonek harro.

—Ezta nik ere! —gehitu du Amanek Aiarten eskua askatu bitartean.

—Baina zer diozue? Nolitzemar beldugarria da! —adierazi du hitz totelka Aitorrek.

Gauean, beldurraren eraginez, ez dute lo askorik egin.



Asier Basurko

Aitor komunera joateko altxa da eta Ixonek sustoa hartu eta literaren bigarren pisutik erori da. Aitor, korrika batean, komuneko atea kisketaz itxi du eta pixka batez egon da mugitu ere egin gabe. Ondoren, komuneko zuloa garbitzeko eskuila eskuan hartu eta, korrika berriro ere, komunetik atera da. Aitorrek Ixone erdi mareaturik ikusi duenean, Nolitzemar dela pentsatu du eta komuneko eskuilarekin jotzen hasi zaio. Ixone builaka hasi da.

—Lagundu! Lagundu! Aitor jotzen ari zait!

—Zer? Ixone? Zu zara?

—Baiiii! Ni naiz!

—Baina zertan ari zarete hor lurrean? —galdetu du Itxasok erdi lotan.

—Ba... hemen... Erori egin gara, baina oraintxe goaz oheratzera berriro.

Hurrengo egunean, bazkalorduan, Jonek Aitorri esan dio arratsaldeko bostetan sukaldera joateko. Eta ordu horretan, puntu-puntu, hurbildu da eta hantxe ikusi du Jone ouijarekin.

—Baina zer egiten duzu ouija horrekin berriro? Badakizu beldurra ematen didala!

—Etorri, etorri lasai, Aitor.

Aitor esertzen ari den bitartean, Jone desagertu egin da.

—Jone! Jone! Non zaude? —oihuka hasi da Aitor—. Jone! Jone!

Aitor korrika joan da lagunengana, Jone desagertu dela esatera eta, ziurrenik, Nolitzemarek eraman duela. Lagunek, ordea, barre egin diote.

—Aitor, etorri gurekin sukaldera —esan dio Amanek barrez.

—Kaixo, Jone! —agurtu du Aiartek.

—Kaixo, lagunak!

—Baina, Jone... Nola bat-batean desagertu eta agertu zara? Aske utzi al zaitu Nolitzemarek? —galdetu dio Aitorrek harriturik.

—Ez, mutill! Mahai azpian ezkutatu naiz. Dena txantxa bat izan da, Aitor.

—Txantxa bat? Adarra jo didazue? Ba, jakin ezazue ez dudala beldurrik pasa! —azaldu du segurtasunez Aitorrek.

—Ja, ja, ja, ja, ja, ja, ja, ja!

Maddi Andres



Daniela Bernedo

Gazteluko maitagarria

Baziren behin, Elantxobe izeneko herri batean, lau neska-mutil. Zaharrena eta azkarrena Oier zen, 12 urte zituen eta futbola gustatzen zitzaion; bigarren zaharrena Nikole zen, 10 urte zituen eta moda atsegin zuen; hirugarrena Johannes zen, 9 urte zituen eta futbolari bikaina zen; eta gazteena berriz, Nahia zen, 8 urte zituen eta ikasle paregabea zen. Nikole eta Nahia ahizpak ziren eta asko maite zuten elkar.

Egun batean Nikolek whatsapp bat jarri zuen:

—Kanpineko tresnak hartu eta Lizarrako kanpinera joan gaitezke astebete pasatzera! Gure gurasoak prest daude gu bertara gerturatzeko. Elkartuko gara 16:30ean herriko plazan?

—Ni joango naiz. Gurasoak konbentzitu ditut —idatzi zuen Oierrek.

—Ni ere joango naiz —jarri zuen Johannesek—. Gainera badakit futbol zelai erraldoi bat dagoela bertan.

—Oso ondo! Orduan denok joango gara! —gaineratu zuen Nikolek—. Entzun ondo! Internet bidez jakin dut gaztelu misteriotsu bat dagoela Lizarran eta bertan maitagarri bat bizi dela.

—Orduan are eta zirrargarriagoa izango da —bukatu zuen elkarriketa Johannesek.

Ordua iritsi zen eta denak elkartu ziren, baita Nikole eta Nahiaren gurasoak ere. Amaren izena Amaia zen eta aitarena, berriz, Ramon. Denak furgonetan sartu eta han abiatu ziren poz-pez, Goazenen CD berria entzuten eta abesten zuten bitartean.

Heldu zirenean, kanpin dendak prestatzen hasi ziren. Bederatziak aldera afaldu egin zuten, makarroiak eta oilaskoa, eta, berriketan aritu eta gero, oheratu egin ziren.

Hurrengo egunean, esnatu orduko, igerilekuko gauzak jantzi eta igeri egitera joan ziren; ondoren, gosaldutako eta gaztelurantz abiatu ziren, bertatik bertara misterioa ikertzera.

Gazteluko atea egurrezkoa zen eta, ireki zutenean, deabru itxurako gizon bel-durgarri bat topatu zuten:

—Hona sartzen dena ez da inoiz ate honetatik berriro igaroko! —oihukatu zuen.

Ez zirela berriro etxera itzuliko esan nahi zuen horrek, baina ez zioten jaramonik egin. Sartu orduko, eskailera batzuk igo zituzten. Ibilbidean, tarteka-tarteka, irudi,

soinu eta sentsazio arraroak nabaritu zituzten eta gero eta beldur handiagoa zuten. Gazteluko dorrera heldu zirenean, beste ate handi-handi batekin egin zuten topo. Zintzilik kartel bat zeukan:

EZ SARTU! IZAKI MITOLOGIKO ARRISKUTSUA!

Hori ikusirik, Oierrek esan zuen:

—Bai ala bai, sartu behar dugu, ziurrenik maitagarria izango da-eta.

—Egia da! Oierrek arrazoi du. Zertara etorri gara bestela? Ateari begira geratzeko? Sartu egingo gara eta misterioa argituko dugu! —erantzun zuen Nikolek.

Orduantxe konturatu ziren, atea irekitzeko, giltza bat sartu beharra zegoela.

—Gogoan duzue sarrerako zaindaria? Bere sakelan giltza bat duela ohartu naiz eta ate honi dagokiona dela esango nuke! —argitu zuen Nahiak.

—Ba denok sarrerara joango gara eta zaindariari giltza eskatuko diogu! —gaineratu zuen Johannesek.

Eta horixe egin zuten: korrika batean joan ziren sarrerara eta zaindariari giltza eskatu zioten.

—Zertarako behar duzue giltza? —galdetu zuen zaindaria.

—Ba, begira... Ate bat ikusi dugu, baina itxirik dago eta maitagarria ikustera etorri garenez...

—Utziko dizuet, baina baldintza batekin: ni ere zuekin joango naiz —proposatu zuen zaindaria.

Pozik itzuli ziren berriro aterantz lau neska-mutilak. Zaindaria poltsikotik giltza hartu, sarrailean sartu eta atea ireki zuen.

Eta... A, zer ezustekoa! Kaiolatxo batean maitagarri txiki bat zegoen, baina ez zen maitagarri zintzo horietakoa. Ez, ez... Gaizto-gaiztoa eta itsusi-itsusia zen, eta garatxoak zituen aurpegi osoan.

—Zer ekarri didazu, zaindaria? —galdetu zion maitagarri gaiztoak.

—Lau neska-mutil ekarri dizkizut —erantzun zion zaindaria.

—Iruzurtia! Nolatan ausartu zara horrelakorik egiten? —kexatu zen Nahia.

—Azpisugea! —oihukatu zuen Oierrek, zeharo haserreturik.

Handik gutxira zaindaria joan egin zen eta maitagarri maltzurrarekin gelditu ziren. Berehala, maitagarria hitz magiko batzuk ahoskatzen hasi zen:

—Kra, kre, krik! Kra, kre, krik! Buruan duzuen guztia ahaztu dadin!

Eta, bat-batean, buruan zuten guztia ahaztu egin zitzairen. Baina, ordurako, Oier izkina batean ezkutaturik zegoen eta sorginkeriak ez zion kalterik egin.

Nikolek, amnesiaz ukiturik, galdetu zion Oierri:

—Nor zara zu?

—Ez al zara gogoratzen? Oier naiz. Zure laguna! —erantzun zion Oierrek sinetsi ezinik.

—Nor naiz ni? Nola izena dut? —galdetu zuen segidan Nahiak.

Eta, orduan, Oier gertatutakoaz konturatu zen eta oihukatu zion maitagarriari:

—Aizu! Zer egin diezu nire lagunei! Itzuli iezaiezu oraintxe bertan oroimena; bestela, salatu egingo zaitut eta ertzainak etorriko dira zu atxilotzea!

—Eta nik ertzainei ere oroimena ezabatzen badiet? —egin zion mehatxu lasai-lasai maitagarriak.

Oierrek, korrika batean eta arnasestuka, gaztelutik alde egitea lortu zuen eta Ertzaintzara gerturatu zen ziztu bizian.

—Zer txorakeria da hori? —barre egin zioten une hartako arduradunek.

—Baina egia da! Nire lagunak bertan daude! Mesedez!

Baina inork ez zion sinetsi.

—Zer egingo dut orain? —protestatu zuen Oierrek.

Nahia eta Nikoleren gurasoengana joan zen laguntza bila.

—Ramon, Amaia! Nikole, Nahia eta Johannesi oroimena ezabatu die maitagarri itsusi batek. Lagundu egin behar diguzue! Ertzaintzara joan naiz, baina ez didate sinetsi; txorakeriak ez esateko, nahikoa lan badutela eta.

—Zeren zain gaude? Sartu furgonetan eta Lizarrako udaltzaingora joango gara ziztu bizian —esan zuen Amaiak.

Presaka abiatu ziren errepidean eta heldu zirenean...

—Kaixo! Barkatu, baina maitagarri batek nire bi alaba eta beren lagun bat bahituta ditu eta oroimena ezabatu die.

Udaltzain batek erantzun zuen:

—Lehen ere gertatu dira horrelako kasuak. Non gertatu da? Ez zen, ba, kasualitatez, kanpin ondoko gazteluan gertatuko, ezta?

—Ba, bai! Bete-betea asmatu duzu! —erantzun zion Oierrek.



Enara Iglesias

—Ez kezkatu! Oraintxe bertan deituko dut Ertzaintzara eta den-dena konponduko da. Nahi baduzue, etorri gurekin.

Modu horretan, udaltzain eta ertzainez lagundurik, gaztelura joan ziren.

—Non dago maitagarriaren gela? Sartu egin behar dugu! —adierazi zion ertzainburuak gazteluko zaindariari.

—Azkenengo solairuan ezkerretara —erantzun zuen hark besterik gabe.

Heldu zirenean, atea irekita zegoen eta sartu egin ziren.


—Non daude haurrak? Esan edo, bestela, tiroka hilko zaitut! —egin zion mehatxu ertzain batek.

—Hor ondoko izkina batean daude, soka batez lotuta. Oraintxe askatuko ditut eta oroimena itzuliko diet; baina, mesedez, ez bota tirorik! —erregutu zuen maitagarriak.

Azkenean, maitagarriak askatu egin zituen eta oroimena itzuli zien; baina, hori egin bitartean, nahigabe, bere oroimena galdu zuen. Huraxe izan zen bere azken sorginkeria.

Eta, hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Lizarrako gazteluan.

Marina Gaztañazpi



Daniela Recio

Zergatik?

Amesten dudalako,
alfonbra gainean hegan egiten delako,
Nur-ekin gozatzen dudalako,
gauzek hitz egiten dakitelako,
barre algarak egin eta
negar malkoak isurtzen ditudalako,
fotosintesia eta planetak ikasi ditudalako,
bakarrik sentitzen ez naizelako,
urrutiko tokiak ezagutzen direlako,
gaiztoak hil egiten direlako,
hizkuntza aberasten delako,
lo egiten laguntzen didalako...
maite dut IRAKURTZEA.

Ane Alberdi



Laia Bergara

Matxinsaltoa festarik festa

Matxinsaltoa dabil
festarikan festa,
hainbeste juergarekin
aspertuko ez da.

Saltoka ibiliko da
zazpi probintzitan,
garraiorik hartzeko
ez du beharrikan.

Donostia hirian
jo dute danborra,
eskuan makilak ta
buruan gandorra.

Bilbo osoa dago
festetan alaia,
goazen aurrera eta
gora Marijaia!

Gasteizera iritsi,
ederra da plana:
blusa jantzita doa
Zeledonengana.

Sanferminetan Matxin
gorri ta harroa,
nagusitan nagusi
dugu Nafarroa.

Jonikot Pastoral,
kanta Zuberoa...
Matxinek esaten du:
ni ere banoa.

Baigorriin ospatzen da
nafarren eguna,
hemen nafar guztiok
ospatzen deguna.



Alex Carrera

Baionan ere bada
festa txuri-gorri,
ez dio alde egingo
Matxinsaltok horri.

Matxinsaltoa dago
orain nekatuta,
baina ikusi duena
buruan sartuta.

Bidaia egitea
izan da itzela,
Matxin konturatu da
herri bat garela.

Amaiur Sukia

Mikel eta altxor ezkutua

Tirriiii! Ikastolako txirrina jo bezain pronto, Mikel ikastolatik korrika irteten zen. Mikel 10 urteko mutiko bat zen, abentura zirrargarriak gustuko zituen. Denbora galdu gabe, zaharren egoitzara joaten zen arratsaldero. Herriaren kanpoaldean eta erdi erorian zegoen eraikin zahar bat zen zaharren egoitza. Hango aitona-amonen istorioak entzutera joaten zen. Aiton batzuek aspaldiko estropaden kontakizunak kontatzen zizkieten; beste batzuek, gerra garaioak; baina gehien gustatzen zitzaizkion istorioak Joxek kontatzen zizkionak ziren.

Joxe beti bakarrik egoten zen mahai batean. Beste aitonek erotuta zegoela zioten. Joxek, behin angulak harrapatzen zegoela, gau ilun batean pirata ontzi bat kaian sartzen ikusi zuen. Ontzitik lau pirata irten ziren kutxa handi bat arrastaka zutela. Handik gutxira ontzira bueltatu ziren kutxarik gabe eta Joxek beti esaten zuen altxor bat zegoela herrian gordeta. Dena dela, istorio hura Mikelek bakarrik sinesten zuen.

Mikel parkean pala batekin zuloak egiten jolasten zebilela, botila bat aurkitu zuen. Botila barruan mapa zahar bat zegoen. Lagunei erakutsi eta, biharamunean, palak hartu eta lagun guztiak prest zeuden altxorraren bila joateko. Mapak ikastola atzeko mendia zuen margotuta. Lehen X-a mendi tontorreko gurutzearen azpian

zegoen. Hara iritsi zirenean, palak hartu eta, presaren presaz, zuloak egiten hasi ziren. Hamargarren zuloan, topo! Mikelek beste botila bat aurkitu zuen. Botilak mezu bat zuen barruan. Denbora galdu gabe, botila ireki eta irakurtzen hasi ziren:

—Hamar pauso ezkerretara eta zortzi eskuinetara.

Denak kontatzen hasi ziren Mikelen pausoak: bat, bi, hiru... Pausoak egin ondoren, berriro palak hartu eta lanean hasi ziren. Zulo handia egin eta gero, beste botila bat aurkitu zuten. Botila hark ere mezu bat zuen barruan:

—Hamabost pauso aurrera eta sei eskuinetara.

Berriz ere, lagunak kontatzen hasi ziren. Azken pausoa eman zutenean, ikastola aldamenean zegoen zuhaitz handi baten azpian geratu ziren. Berriz palak hartu eta lurra zulatzen hasi ziren

Hiru metroko zulo bat egin behar izan zuten. Izerditan blai zeudela, kutxa handi eta polit bat aurkitu zuten.

—Piraten kutxa! —oihukatu zuen Mikelek—. Joxek esaten duena egia da!

Urduri, harri bat hartu eta kolpeka ireki zuten. Urrezko txanpon pila bat zituela ikusi zuten. Lagunak txunditurik geratu ziren hainbeste txanpon ikusita. Pozaren pozez, elkartu eta bilera bat egin zuten, altxorrarekin zer egin erabakitzeko. Mikelek proposamen bat egin zuen: altxorra zaharren egoitza berritzeko erabiltzea, alegia. Lagunek ados zeudela esan zioten.

Handik hilabete batzuetara zaharren egoitza berritu zuten eta herriko agureak pozik joaten ziren zahar etxera. Mikel eta bere lagunei ongi etorri bikainak egiten zizkieten.

Baina Mikeli gehien gustatzen zitzaiona zen Joxe ez zela jada bakarrik esertzen. Beste aitona-amonekin jartzen zen eta lehen inork sinesten ez zizkion istorioak orain denak zituzten gustuko.

Julen Saez

Zeruko itsasoa

2018ko uztailaren 4a da eta gu, arrantzaleok, itsasora aterako gara bihar goizean arrantzara. Martin naiz, 40 urteko arrantzale oriotarra. Alde batetik, triste nago, nire emaztea eta bi alabak ez ditudalako ikusiko luzaroan; baina, era berean, oso pozik, itsasoa ikusiko dudalako egunero esnatzen naizenean. Horixe da arrantza-leon bizitza, eta sentimendu asko pilatzen zaizkigu itsasora atera behar dugunean.

Goizeko zazpiak dira eta eguraldia lainotsua, lanbrotsua eta iluna ageri da. Orioko herria gure irteeraren zain dago. Gutxi falta da nire familatik urruntzeko eta Elene txikia niregana etorri da.

—Aitatxo, noiz itzuliko zara etxera? —galdetu dit goibel.

Jakin badakigu noiz aterako garen, baina ez noiz itzuliko. Baina Eleneri, jakina, erantzun horrek ez dio balio.

—Lasai, alabatxo! Laster itzuliko gara.

—Piiiiiiiiiiiiiiii!

Ezaguna zait soinu hori, ateratzeko garaia da.

—Itsasoratu egin behar dugu! Zatozte! —esan digu kapitainak.

Itsasoaren erdian gaude, gaua da eta guztiok ohera goaz.

—Orain bakoitza bere ohera —esan du kapitainak.

Hurrengo goizean guztiok esnatu gara eta gauza ikaragarri bat gertatzen ari da! Zurrumbilo batera sartu gara itsasoaren erdian! Eta goraka goaz!

—Aaaaaaaa! A, zer beldurra! —esaten du marinel batek.

Bat-batean zeruan esnatu gara, laino artean.

—Zer da toki hau? —galdetu du batek

—Iruditzen zait zeruan gaudela eta are gehiago nabigatzen ari gara aurrerantz.

Lainoak itsasoko ura bezala mugitzen dira. Zeruko itsasoan gaude! A, zer lasaitasuna! Oso leku misterioitsua da eta, orain, hildako pertsona ezagunak ikusten ari gara: Elkano pasa da itsasontzian agur eginez, Oteiza eskultura bat egiten, Lasarte arrantzaleei bertsotan eta Amona Petra sarea josten. Zur eta lur gelditu gara guztiok. Sinestezina da. Bat-batean, lainoen ortzi-mugan zerbait ikusi dugu:

—Baleaaaa! Baleaaaa!

Itsasontzian zerbait harrigarria gertatzen den bakoitzean erotu egiten gara. Bat oihuka, bestea korrika... Bailearen agerpenak guztiok urduritu gaitu. Lasaitu egin gara eta harrapatzea erabaki dugu. Arpoiak, sokak eta arraunak hartu ditugu.

Gerturatzea lortu dugunean, balea guri erasotzen saiatu da bere buztan erraldoiarekin: Zaaaaapla! Itsasontzia jo du eta masta hautsi digu.

Arpoia botatzera gindoazenean, beste egoera ikaragarri bat gertatu da! Bost traineru agertu dira patroia banarekin: Olaizola, Loidi, Uranga, Atxaga eta Manterola; eta, haiekin batera, arraunlari pila bat.

—Geldiiii! Balea hori 1901. urtean hil genuen guk. Behin hilik dagoen balea bat ezin da berriz hil!

Ez da posible! Hainbeste aldiz Benito Lertxundiren bertsoetan entzundako arraunlariak gure begien aurrean daude eta balea ere bai! Nola liteke?

Ustekabean, zurrunbiloak zurrupatu egin gaitu berriro zeruko itsasotik lurreko itsasora. Kantaurre Itsasora erori gara eta Oriore goaz, sardinatxo edo antxoa bakar bat ere harrapatu gabe. Zer dilema! Guztia kontatu nahi diegu herritarrei, baina ez daukagu frogarik... inork ez gaitu sinetsiko. Portura sartzen ari gara eta herritarrek ongiatorria egin digute txaloka.

Orain etxean nago eta Elene alabak galdera egin dit:

—Zer gertatu zaio itsasontziko mastari?

—Zeruko itsasoan egon gara...

—Baina hori ez da existitzen, ezta?

—Hara, Elene... Gauzak ez dira beti guk pentsatzen ditugun bezalakoak.

—(...)

IRAKURLE MAITEA, ZURE ESKU DAGO SINESTE A LA EZ, BAINA ZINEZ DIOTSUET: HAU NIRI GERTATUTAKOA DA!

Amaiur Sukia

Munduko herriak

Harantza joateko
jakin behar ingeles,
Britania Handiko
hiriburu Londres.

Maitasunaren hiri,
horixe da Paris;
joaten zarenean,
itzuli nahi berriz.

Pasta egiten maisu,
pizza oso onak...
plater ederrak jartzen
dizkigu Erromak.

Mundua bete zaigu
hainbeste txinokin,
txinako hiriburu
handiena Pekin.


Amerikan dagoela
badaki edonork,
raskazielos beteta
hortxe dago New York.

Asian ez daukagu
toki egokio,
teknologiz beteta
Japonen Tokio.

Zatituta egon zen
harresi batekin,
Alemaniak dauka
hiriburu Berlin.

Ezin inon aurkitu
toki bat hobio,
ni hemen bizi naiz ta
hauxe da Orio.

Jokin Iruretagoiena



Brittney Coon

Nire anaia txikia

Goizean goiz esnatu
ta ni ia prest nago
ta nire anaia, berriz,
nire anai txikia
oraindik janzten dago.

Nire anaian erruz,
berandu iritsi gera
gu ikastolara.
Nire anai txikia...
Nei errita, gainera.

Bazkaldu eta gero
berriz ere ikastola,
eta nire anaiak,
nire anai txikia,
zikindu du txapela.

Berriz ere goizeko
berdina gertatu,
nazkatuta nago ni,
nire anai txikia,
etxen ikusiko du.

Lau t'erdia iritsi
dira azkenean,
penaz etxera jun ber,
nire anai txikia,
anaia gaixo etxean.

Anaiak lanpara jo
ta orain puskatuta,
errua bota dit nei,
nire anai txikia,
eta ni zigortuta.

Afaltzeko ogia
jan du nire anaiak,
eta nik jango etena,
nire anai txikia,
bere ogi papurrak.

Orain gaua denean
bagoaz ohera,
anaian zurrungakin,
nire anai txikia,
nik ez daukat logura.

Naiz ta desastrea den
nire anaitxoa,
asko maite dut nire
nire anai txikia,
anaia maitetxoa

Malen Lertxundi

Hiru desioak

Kaixo, lagunok! Nik Uxue izena dut eta Orion bizi naiz. Orain kontatuko dizuedan istorioa niri gertatutakoa da. Ez da umeen liburuetan ateratzen den fantasia, ez, hau benetakoa da. Horrelaxe hasi zen dena...

Udara zen. Ni eta nire gurasoak Amsterdam izeneko hiri batera joan ginen eta astebate egon ginen han, abuztuaren 13tik 20ra. Hirira joan baino lehenago, Getxon egon nintzen udaleku batean. Han Lier izeneko mutil bat ezagutu nuen, 12 bat urte zituen. Udalekua bukatzean, lagunik hoberenak ginen. Niretzat hori baino gehiago zen. Egia esan, maitemindurik nengoen berriro. Maiteminduta izan nintzen azkeneko aldia etorri zitzaidan gogora: gorri-gorri eginda, baina munduko esperantza guztiarekin, hauxe esan nion nire gustuko mutilari, Juleni:

—Kaixo, Julen... ba, esan nahi nizun...

Azkenean, bota egin nuen:

—Zutaz nago.

Eta horra esan zidana:

—Bale! Igual zait, nazkagarri.

Julen orain okupatuta dago. Esan nahi dut neska daukala: Paula. Lehengo urtean bere neska Lia zen; baina, nola Veneziara joan zen, orain Paularekin dago. Paula deskribatuko dizuet: handien haurrean oso txintxo eta hori dena, baino gurekin txulita bat da eta ematen dit gogo bat burua arrankatzeko... ez dakit nola Julenek aguantatzen duen. Kontatu didatenez, Paula Afrikara joan da aitaren lanagatik... Ikusiko du...

Berriro temara etorriko naiz: Lier eta ni oso lagunak egin ginen eta erabaki genuen udaran gutunak bidaltzea elkarri. Oporretara joan baino lehen, Lierren gutun bat iritsi zitzaidan. Indiatik zetorren eta hau jartzen zuen:

Kaixo, Uxue.

Egun hauetan Indiako herrixka batean egon naiz. Han gauza asko ezagutu ditut. Espero dut zu ere oso ondo pasatzen egotea.

Muxu asko.

Zure lagun agurgarria.

Lier

Jartzen zuen, baita ere, Bombay inguruko herri batean zegoela (Hattori edo Hatomith, ez dakit, oso izen arraroa zen). Gutuna oso arraroa zen: zati bat zeukan

oso erromantikoa eta beste bat *ni fu ni fa*. Aurrena zati erromantikoa azalduko dizuet. Nire bizitza osoan mutil batek, aita kenduta, esan dizkidan gauza polit eta erromantikoenak esaten zituen. Igual pixka bat pasatu naiz, baina niri bihotza zeharkatu zidaten goitik behera. Bukaeran hau idatzi zidan: Espero dut berriro elkar ikustea. Eta, orain, *ni fu ni fa* zatia... Normalean, lagun batek argazki bat bidaltzen dizuenean, ez dizu bidaltzen koadro batena edo museo bat. Ez, bidaltzen dena zure argazki bat da eta Lierrek joan eta putzu baten argazkia bidali zidan niri, ez zaizkidala batere gustatzen. Nik oso letra ona dut eta, hori demostratzeko, ba, gutun bat idatzi nion:

Kaixo, Lier:

Zer moduz zaude? Ni ondo. Azkenean, Amsterdamera joango gara. Gogo handia dut. Ea hurrengo urtean berriro ikusten dugun elkar.

Zure lagun polit eta maitagarria.

Uxue

Azkenean iritsi zen eguna: Amsterdamera joango ginen. Gogoratzen dut abuztuaren 13ko goizeko 8:15ean abioia hartu genuela.

Niretzat lehengo aldia zen abioi batean ibiltzen nintzela eta izugarritzko esperimentzia izan zen. Goian zeundenean, eguzkia pare-paretik ikusten zenuen eta lainoen gainetik joaten zinen. 10:45erako han geunden, Amsterdamen. Ezin nuen sinetsi; azkenean iritsi ginen. Aurrena hotelera joan ginen, maletak uztera eta gero, hamabietan, informazio-gune batera joan ginen.

Han mapa bat eman ziguten, eta hirian zehar abiatu ginen maparekin. Nire ustez, lekurik hoberena Keukenhof zen, hau da, munduko jardinek politena. Denetatik zegoen: tulipak, krabelinak, lirioak eta beste lore asko. Han goiz osoa egon ginen eta, bazkalorduan, hotelera itzuli ginen. Hotelean buffet irekia zegoen eta badakizue zer zegoen? Sushia! Sushia munduko gauza gozo eta ederrena da. Pilo bat gustatzen zait. Arratsaldean kanaletara joan ginen, barkuan ibiltzera. Amsterdam erdi-erditik zeharkatu genuen eta oso ondo pasatu nuen.

Hotelera iritsitakoan, dutxa bat hartu eta afaltzera joan ginen. Gauean, zoritxarrez, sushia bukatuta zegoen eta, beraz, izokina afaldu nuen. Ez dut esaten txarra zegoenik; baina nik sushia nahi nuen. Afaldu eta gero leher eginda bukatu nuen eta egin nuen gauza bakarra pijama jantzi eta lotara sartzea izan zen.

Goizean zortzietan esnatu nintzen eta gosaria bederatzietan zen. Orduan telebista ikusten geratu nintzen. Kanal guztiak nederlanderaz zeuden; motxian: ez nuela ezer ulertzen. Baina arraroa iruditzen zitzaidan Eguberrietako kantak ematen hastea, uda betean egonda. Honela kantatzen zuten:

*Ik had geloof in mijn dromen
Maar ik keek door een roze bril
Ik ben mijn toekomst verloren
Is dit dan wat jij echt wil
Er is voor ons ook geen morgen meer
Was dit de laatste keer
Maar toch vraag ik jou*

Gehiago ez dizuet jarriko; bestela hil dezakezue-eta, nik bezala. Hori entzun eta gero, konortarik gabe geratu nintzen. Ospitalera eraman ninduten eta han ordu pare bat egon nintzen. Gainera, esan zidaten atsedenaldi bat egiteko eta beste egun bat ohetik altxa gabe egoteko eta hor beste egun bat galdu nuen.

Abuztuaren 17an ia sendatuta nengoen eta nire gurasoek gida bat hartuta zuten eta berarekin joan ginen, hiriko leku polit eta misterioetsuenetara. Niri gehien gus-tatu zitzaidana Laberintk Frtedsa izan zen. Irakurtzen den bezala, labirinto bat da; baina paretak belarrezkoak ziren.

Gu, jakina, ez ginen galdu gidarekin gindoazelako; baina, labirintoa zeharkatzen ari ginela, ate zahar-zahar bat ikusi nuen. Gurasoak gidarekin hitz egiten ari zirenez, atera inguratu nintzen. Irekita zegoenez, sartu egin nintzen. Sartu nintze-nean, dena berde-berde zegoen eta lorez betea. Erdi-erdian putzu bat zegoen

Putzu hura Lierrek bidali zidan argazkikoaren berdin-berdina zen. Hori asimila-tu eta gero, gerturatu egin nintzen eta pum! entzun zen. Ederra sustoa hartu nuena! Azkenean, katu bat besterik ez zen. Orduan, beste saiakera bat egin nuen eta berriro pum! Berriz ere katua zen. Azkenean, pixka bat nekaturik, berriro ere saiatu nintzen eta orduan ez zen ezer gertatu eta putzua hutsa zegoen. Joaten hasita nengoenean...

—Kaixo, Uxue! —entzun zen ahots astun eta indartsuz.

—Zein dago hor? —esan nuen, eta bueltatu egin nintzen.

—Ni naiz.

—Baina non zaude?

—Hemen putzuan.

Orduan putzura hurbildu nintzen, eta behera begiratu nuen. Ez nuen ezer ikusi. Eta berriro galdetu nuen:

—Baina non zaude?

—Hemen! Zure aurrean —esan zuen oso serio.

Beherantz begiratu nuen, eta bi begi eta aho bat ikusi nituen. Ezin nuen sinetsi: putzua hitz egiten ari zen! Eta orduan galdetu nion:

—Nola hitz egin dezakezu?

—Ba ahoarekin, jakina.

—Eta zertarako hitz egiten duzu?

—Ni ez naizelako putzu arrunta. Ni putzu magikoa naiz eta nirekin hitz egiten duen bakoitzari hiru desio ematen dizkiot.

—Orduan nik ere hiru desio ditut!

—Jakina baietz!

Bat-batean koilare bat agertu zen eta putzuak esan zidan desio bat eskatzeko gauza bakarra egin behar nuela: zer nahi nuen esan eta koilarea ukitu.

Oporretako azken egunetan jatetxetara joaten ginen eta gauza gozo eta berriak jan genituen. Azkenean, Oriora itzuli ginen. Opor-egunak oso azkar pasatu ziren; baina oraindik desiorik ez nuen batere eskatu.

Irailean geunden, eta laster eskolan hasi behar genuen. Gelako guztiak ia herrian zeuden eta Lierren gutun bat iritsi zitzaidan. Egia esan, asko poztu nintzen irakurri eta gero. Hau jartzen zuen:

Kaixo, Uxue.

Berri on bat dut zuretzat: nire gurasoek lana aurkitu dute Orion eta hara joango gara bizitzera. Irailaren 3an han izango gara. Laster ikusiko dugu elkar.

Zure lagun maitea.

Lier

Hori irakurri eta gero, korrika joan nintzen salara, egutegia begiratzera.

—Irailak 2 da! —esan nuen oso harrituta.

Munduko egunik luzeena izan zen, baina azkenean...

—Pi, pi, pi... —jo zuen alarmak.

Azkar gosalduta eta etxeko atearen ondoan egon nintzen itxaroten.

Minutuak eta orduak pasatu ziren eta inork ez zuen atea jo. Azkenean, logelara joan nintzen, ezin nuelako gehiago. Desesperatuta nengoen...

—Tirrin, tirrin!

Korrika jaitsi nintzen atea irekitzera, baina postaria besterik ez zen.

Ezin nuen horrela segitu eta, beraz, gelako guztiei deitu nien geratzeko.

Bazkaldu eta, lauretan, itsasargira joan nintzen han geratu ginelako gelakoak. Iritsi nintzenean, bakarrik Paula, Julen, Mikel eta nire lagunik onena Elena zeuden. Paula oso maja zegoen eta, iritsi nintzenean, hau esan zidan:

—Kaixo, Uxue. Zer moduz?

—Ondo! —esan nion harrituta

Han geunden bitartean, jendeari deitzen hasi ginen eta denak aitzakiak jartzen hasi ziren. Adibidez, Izarok esan zigun:

—Barkatu, baina Donostiara joan naiz, zentro gunera.

Txutxeak hartu eta gero, U-ko parkera joan behar genuen. Abiatzera gindoazenean, entzun zen:

—Uxue!

Eta han zetorren Lier korrika batean.

—Nola jakin duzu hemen egongo ginela? —galdetu nion.

—Ba, erraza izan da: zure etxera joan naiz eta zure amak esan dit hemen egongo zinela —esan zuen Lierrek.

—Zein da hau? —galdetu zuen Elenak.

—Zein da? Zure bikotea? —galdetu zuen Mikelek oso urduri.

—Ez. Hau nire lagun bat da —erantzun nuen—. Udalekutako lagun bat.

—Baina zergatik dago hemen? —galdetu zuen Elenak.

—Ba, Oriora etorri delako bizitzera. Gainera, geure gelan egongo da. Lier Karrera izena du.


Azkenean, arratsalde osoa jolasten pasa genuen eta, bat-batean, gogoratu nintzen hiru desioena ez niela esan lagunei. Orduan hitz egiten hasi nintzen:

—Lier, gogoratzen duzu bidali zenidan putzuaren argazkia? —galdetu nuen.

—Jakina. Gainera, informazio pila dut putzuari buruz: esaten dutenez, putzu hori magikoa da eta mundutik mugitzen joaten da, leku batetik bestera. Entzun dut, baita ere, hitz egiten baduzu berarekin, hiru desio ematen dizkizula, baina inork ez du desagertzen ikusi.

—Nik hori ez dut sinesten —esan zuen Mikelek.

—Amsterdamera joan nintzenean, putzuarekin topatu nintzen eta hiru desio eman zizkidan. Oraindik ez ditut erabili eta koilare honetan ditut.



Arhane Uranga

Nik, nire buruan, pentsatuta neukan hirugarren desioan Lierrekin bizitzea eskatuko nuela.

—Ideia bat daukat: zergatik ez dugu putzua bilatzen? Oriotik ere pasatu beharko du, ezta? —esan zuen Julenek.

—Niri ondo iruditzen zait —esan zuen Elenak.

—Baina izen bat beharko dugu gure taldearentzat —esan nuen.

—Zer iruditzen zaizue HOSTOAK ? —galdetu zuen Lierrek.

—Ederki! —esan genuen Mikelek eta nik.

Orduan *Bat denontzako eta denok batentzako... HOSTOAK!* esan genuen denok batera.

Hurrengo egunean Paularen etxera joan ginen informazio bila. Han denak putzuaren informazioa bilatzen hasi ginen. 15 minutu igaro ondoren, Mikelek ia aurkitu zuen gauza bat, liburu batean bertan hau jartzen zuen: 2004an aurkitu zen putzua Orion.

—Horrek esan nahi du mundu guztiari bira egiteko 13 urte behar dituela. Aurten etorriko dela —esan nuen

—Beste gauza bat ere ikusi dut hemen: irailaren 5ean aldatzen dela tokiz —esan zuen Paulak.

—Bale, badakigu noiz izango den; bakarrik tokia jakitea falta da —esan zuen Elenak

—Badakit! Konparatu ditut nik putzua aurkitu nuen lekua eta zeuk aurkitu zenuen lekua eta berdina da. Hau da: herriaren iparra 53º eta ekialdea 22º —esan zuen Lierrek.

—Orain bakarrik begiratu behar ditugu gradu horiek Orioko mapa batean —esan zuen Julenek.

—Badakit nola kalkulatzeko den hori! Robotikako kurtso batean egon nintzen iaz. Utzi ordenagailua, Lier —erantsi zuen Mikelek—. Listo... autopista azpiko basoan da.

—Lortu dugu! Informazio guztia eskuratu dugu! —esan nuen—. Eta goiz batean! Aupa HOSTOAK!

Arratsaldean berriro geratu ginen. Oraindik udaran geunden eta moilan egon ginen seiak. Lagunik onenak ginen eta dena perfektua zen. Hostoak batera geunden eta ez ginen banatuko.

Biharamunean, hamaiketan, autopista azpian geratu ginen. Iritsitakoan, arazo batekin aurkitu ginen.

—Zer egingo dugu? Basoak sarrera itxi du —esan nuen.

—Lasai, Uxue! Nik libratuko dut! —esan zuen Mikelek.

Azkenean, zikin eginda bukatu zuen, eta zauri txikiz betea.

—Ondo nago —esan zuen Mikelek.

—Uxue, uste dut garaia dela zure desiotako bat eskatzeko —esan zuen Lierrek.

—Bai, egia da —eta, koilareari eutsiz, hau esan nuen:

—Mesedez, ireki bidea baso osoan.

Bat-batean nire koilarea argia egiten hasi zen; hainbeste non denek begiak itxi behar izan genituen. Begiak irekitzean, basoak sarrera irekia zuen. Julen aurretik zihoan maparekin eta bere atzetik Paula. Puntura iritsi baino lehenago kantatzen gabiltzala, Julen erre kara erori zen eta ezin zuen atera. Ia ez genuen ikusten, erre kak eraman egin zuen-eta. Orduan erabaki nuen beharrezkoa zela beste desio bat eskatzea. Berriro koilareari eutsi nion eta hau esan nuen:

—Mesedez, ekarri Julen gurekin.

Berriro koilarea argia egiten hasi zen eta berriro begiak itxi behar izan genituen. Irekitakoan, Julen han zegoen. Ederra sustoa hartu genuena.

Iritsitakoan, euria hasi zen eta denak galtza motzekin geunden. Bat-batean, trumoi bat entzun zen eta, harekin batera, zuhaitz bat erori zen.

Lierrek esan zuen:

—Lagundu!

Denak bere gana joan ginen eta Paulak galdetu zuen:

—Ondo al zaude, Lier?

—Ba, ikusten duzun bezala, ez. Arbolak hanka harrapatu dit.

Euria ez zen gelditzen eta denak zuhaitza altxatzen saiatu ginen; baina ezin genuen. Lierrek ezin zuen gehiago; neka-neka eginda zegoen. Gainera, zuhaitzaren zati bat erre karen barruan zegoen eta, poliki-poliki, zuhaitza hondoratzen ari zen. Ezin genuen ezer egin, zuhaitza askatzen bagenuen Lier zuhaitzarekin batera hondoratuko zen-eta.

Bat-batean argi bat azaldu zen eta Julenek esan zuen:

—Begira... Putzua! Azkar, goazen! Ez dugu denbora asko.

—Bai, baina Lier? —esan nuen.

—Egia, ezin dugu bakarrik utzi; bestela, hondoratu egingo da.

Ez nekien zer egin. Azkeneko desioa geratzen zitzaidan eta beste gauza bat eskatu nahi nuen. Denbora azkar pasatzen zen eta Lier oso gaizki zegoen. Azkenean, erabaki bat hartu nuen. Koilarea hartu eta hau esan nuen:

—Mesedez, askatu Lier.

Orduan nire koilarea argia egiten hasi zen eta denek begiak itxi genituen. Irekitakoan, han zegoen Lier!

Segituan denak beregana joan ginen eta gero etxera lagundu genion, zauriak sendatzera.

Azkenean, ez nuen nahi nuen desioa eskatu, baina hoberena izan zen, esperimentzia honekin ikasi baitut *lagunak lagunak direla eta behar dituzunean beti han egongo direla* eta hemen bukatzen da gaurko istorioa.

Itsaso Ayerbe



Ane Amas

Abentura mendian

Maritxu, Ricardo eta beren ikasleak, txangoan doaz mendira, ondo pasatzeko intentzioarekin.

—Benga... Guatxen, umeak! —esan du Ricardo irakasleak. Izan ere, ez da euskalduna, eta ikasten ari da euskaraz.

—Bai, Rika! —erantzun dute ikasleek, barre artean. Ikasleek Ricardori Rika deitzen diote-eta.

Rika eta Maritxu martxa onean hasi dira; baina, aldapak gora hasi bezain laster, nekatu dira biak.

—Itxaron, umeak! —esan du Rikak, ikasleak aldapan gora korrika doazela ikustean.

—Bai, bai... itxaron! —esan du Maritxuk arnasestuka, bera ere nekatuta baita-go.

Iritsi dira gailurrera eta Rika eta Maritxu lurrean etzan dira. Ezin dute gehiago.

—Gosetxen hazia nais... Jango dugu? —galdetu dio Rikak Maritxuri.

—Baina oraindik hamaikak dira... —erantzun dio Maritxuk.

—Ba, hamaiketakoa! —erantzun du Rikak irribarre zabal batekin, baina laster joan zaio irribarrea.

—Haurrak, hamaiketakoa egingo dugu! —esan du Maritxuk, eta haur guztiak jaten hasi dira.

—O, o... Non dago nire motzila? —galdetu du Rikak oso kezkatuta.

—Ba zuk jakingo duzu —esan dio Maritxuk lasai bere hamaiketakoa jaten.

—Etx zenidan txuk lapurtuko esta? —galdetu dio Rikak haserre aurpegiarekin.

—Nik? Ez, ez, ez... Lasaitu zaitez, gizona... Ez da horrenbesterako! —esan dio Maritxuk.

—Nola lazaituko naiz, ba! Nire janari guxtokoena nuen: kroketak! —erantzun dio Rikak negar zotinka.

—Motzilaren bila noa! —esan du Rikak.

—Ez utzi ni bakarrik! Beldurra dut! —esan du Maritxuk.

—Ba, etor saitek nirekin, ni es naix geratuko janaririk gabe! —esan du Rikak,

eta aldapan behera joan da, bere motxila berreskuratzeko intentzioarekin; eta Maritxu atzetik joan zaio.

Bitartean, haurrak jolasean dabilta gustura.

—Non daude irakasleak? —galdetu du Lorek.

—Ba, ez dakit; baina hemen behintzat, ez —erantzun dio Patxik axolagabe.

—Ba, orduan, nahi duguna egin dezakegu! —esan du Lorek pozik.

—Hori da! —erantzun dute haur guztiek. Denek motxila lurrera bota eta korrika eta saltoka hasi dira jolasean. Zuhaitzetara igo dira, jantziak kendu dituzte eta gona modukoak jantzi... eta, konturatu gabe, basoan barneratu dira.

Basoaren barruan daudela, hartz bat etorri zaie ondora eta usainka hasi da.

—Kaixo, hartza! Nahi duzu gurekin jolastu? —galdetu dio Lorek hartzari.

Hartzak ez du ezertxo ere esan, baina baietz egin duela ematen du, berekin jolasean hasi baita, eta laster atera dira zuhaitzen tartetik beste hartz batzuk ere, eta denek jolasean jarraitu dute.

Bitartean, bi irakasleak ez dira ari ondo pasatzen.

—Nire janaria nahi dut! —esan du Rikak negar zotinka.

—Lasai, aurkituko dugu... —esan du Maritxuk; baina ez oso seguru eta oso beldurtuta.

—E! Hor dago nire motzila! —esan du Rikak, eta korrika hasi da aldapan behera.

Muturkatu, erori eta zilipurdika joan da aldaparen hasierara.

—Lasai, nik hartuko dut! —esan du Maritxuk, korrika zihoala motxilaren bila.

Baina, gutxi falta zenean, hartz bat azaldu da zuhaitzen artetik eta motxila hartu eta eraman egin du. Maritxu harriturik geratu da.

—Baina xer egiten dusu geldi? Segi bere atzetik! —esan dio Rikak.

—Aizu, beldurra ematen dit... Segi zu! —erantzun dio Maritxuk.

—Bai, hori egin beharko dut aldapa hau igotxean —esan du Rikak.

Azkenean, iritsi da Rika aldaparen bukaerara eta hartzaren oinatzei jarraitzen hasi da. Maritxuk Rikari jarraitu dio.

Denbora baten ostean, hartz pila bat hasi dira ikusten eta, berekin batera, haurrak jolasten. Haurrek irakasleak ikusi zituztenean, korrika abiatu dira ihesi.

Hasieran, Rika eta Maritxu beren atzetik korrika hasi dira; baina gero, nekatu eta gelditu egin dira.

Iluntzen hasi du eta haurrak nekatzen hasi dira.

—Aizue, zer iruditzen zaizue irakasleengana bueltatzen bagara? —galdetu du Lorek.

Hasieran denek ezetz esan dute; baina, gero, konturatu dira oso nekatuta daudela eta etxera itzultzeko gogoia dutela.

—Bueno, bale... —esan dute denek, eta irakasleengana joan dira.

Han daude biak lotan lokatzetan.

—Rika, Maritxu... Bueltatuko gara etxera? —galdetu dute hurrek.

Rika eta Maritxu esnatu direnean, autobusari deitu, menditik jaitsi eta etxerako bidea hartu dute.

Kattalin Zinkunegi



Nora Bravo

Nire ametsa

Ametsa izan nintzen zure loaldian,
taupada izan nintzen zure bihotzean,
letra izan nintzen zure gutunean,
malkoa izan nintzen zure begietan,
agurra izan nintzen zure abestian,
eta orain malenkonia naiz zure oroimenetan.

Ines Duran

Pilota

Ni joaten naiz
pilotaren bila.
Batzuek botea dute bizia,
besteek, aldiz, hila.
Nolakoa da pilota?
biribil-biribila.
Txapelketaz txapelketa,
frontoiz frontoi,
lagunarte ederrean,
oroitzapen pila.

Gerriko urdin, gerriko gorri,
pilotariak sarri urduri,
takoak eskuetan, galtza txuri,
atzera, aurrera,
ezker, eskubi,
eman gogor pilotari.

Enaitz Oliden



Iraia Fervenza

Paititi: inken sekretua

Kaixo! Ni Tolosan bizi naizen 12 urteko mutikoa naiz, eta Mikel dut izena. Metro eta erdi neurtzen dut gutxi-gorabehera eta sorbalda zabalak ditut. Ilea motza eta marroi kolorekoa dut. Begi handi marroiak ditut eta ezpain haragitsuak.

Hau dena gure klubean nengoenean hasi zen, orain dela hilabete (gure kluba historian zehar gertatutako gauzak aztertzeko egina dago). Klubean, zoritxarrez, lau partaide besterik ez ginen: Andoni, Garazi, Ana eta ni. Aste hartan inkei buruz ari ginen hizketan. Inkak Amerikako inperio zabalena izan ziren XII. mendetik XV. mendera. Bat-batean Andonik esan zuen:

—Inka hauek bere garairako oso aurreratuta zeuden, gauza asko asmatu zituzten.

—Bai. Gainera, hemen esaten du altxor erraldoi bat lurperatu zutela Machu Picchutik oso gertu —esan zuen Anak—. Altxorraren lekuak Paititi izena zuen eta historialariek hara 30 espedizio egin dituzte gutxi-gorabehera, baina ez dute ezer aurkitu.

—Orduan guk aurkituko dugu —esan zuen Garazik.

Beste hirurak barrez hasi ginen neska ilehoriak sekulako tontakeria esan zuelako:

—Nola aurkituko dugu altxorra ikastolak klubarentzat zentimorik ematen ez badigu —sartu nintzen ni.

—Gure kabuz joan gintezke —erantzun zidan Garazik—, laster Gabonak dira-eta.

—Eta nondik aterako dugu dirua? —galdetu zuen Andonik.

—Eskatu egingo dugu —berriz neskak.

—Dirua edukita ere, 30 historialari baino gehiago saiatu badira aurkitzen eta ez badute ezer lortu, zerk pentsarazten dizu guk aurkituko dugula? —esan zuen Anak.

—Altxorra bilatzen ez badugu ere, sekulako aukera izango litzateke Peru ezagutzeko eta Machu Picchu bisitatzeko.

Handik aurrera dirua eskatzen hasi ginen eta nik uste baino hobeto joan zitzai-gun. Historia gustatzen zitzaion gizon aberats batek sekulako dirutza eman zigun. Gizonari eskerrak eman genizkionean, hau esan zigun:



Jokin Iruretagoiena

—Nik edozer gauza egingo nuke zientziagatik!

Beste jende askok eman zigun dirua eta aste batean lortu genuen behar genuen guztia: lau ume eta guraso batentzat (nire ama joango zela erabaki genuen) hegazkinez bidaia eta hotela.

Eta horrelaxe iritsi ginen hegazkinera. Bidaia oso luzea egin zitzaidan, iristeko gogoz nengoelako. Lurreratu ginenean, ni izan nintzen hegazkinetik ateratzen lehena.

—Nola joango gara hotelera? —galdetu zuen Anak.

—Taxi batek gure zain egon behar du —esan zuen nire amak.

Eta halaxe izan zen: gizon bat zegoen gure zain kartel batean nire amaren izena zuela. Gizona beltzarana zen eta rastak zituen. Bere izena Alfredo zela esan zigun, gaztelaniaz. Alfredok segituan eraman gintuen hotelera. Uste dut semaforo batzuk bidean utzi zituela.

Hotela bi izarrekoa zen eta ondo zegoen. Bi logela geneuzkan: bat mutilentzat eta bestea neskentzat. Altxorra aurkitzeko hiru egun besterik ez genituenez, hurrengo egunean Machu Picchura joan ginen. Ni harrituta geratu nintzen tokiarekin. Inken hiri zahar batean geundela pentsatzeak tripan tximeletak jartzen zizkidan.

—Toki hau ikusgarria da! —esan zuen Andonik.

—Bai, egia da! —esan nuen nik. Ez nuen beste hitzik, txundituta nengoen.

Machu Picchu guztia aztertu eta gero, Cuscora joan ginen, inken tokitik gertuen dagoen herrira. Cuscok toki politak zituen; baina, orokorrean, itsusia zen. Bi taldetan banatu ginen Paititi aurkitzeko. Ni eta Andoni eta Garazi eta Ana. Mutilok mendebaldera joan ginen eta neskak ekialdera. Nire ama Cusco bisitatzen geratu zen. Norbaitek zerbait bilatzen bazuen, besteei mugikorretik deituko zien.

Andoni eta ni asko ibili ginen. Altxorra aurkitzen bagenuen, diruarekin zer egingo genuen hitz egin genuen eta ideia asko atera ziren: Lamborghini erosi, etxe erraldoi batean bizi, Play Stationa erosi...

Baina, bat-batean, nire mugikorrak bibratu zuen eta musikatxo bat hasi zen: neskek deitu ziguten. Segundo erdira hartu nuen deia.

—Bai? Zer aurkitu duzue?

—Herri ondoko estatuara etorri behar duzue! —erantzun zidan Anaren aho-tsak.

Ziztu bizian joan ginen. Bizitzan korrika gehien egin nuen unea izan zen hori. Azkenean, urrutitik nesken ile hori eta marroiak ikusi genituen. Estatuaren beheko



Irene Alberdi

aldean zirrikitu bat zegoen irekita inken hieroglifikoekin. Gaua egiten ari zenez, hurrengo egunean jarraitzea erabaki genuen.

Hurrengo goizean dena guk utzi bezala zegoen.

—Zeinek egingo du salto barrura?

—Nik ez —esan zuen Andonik.

—Nik —esan nuen—. Zerbait gertatzen bazait, joan nire amaren bila. Ondo erortzen banaiz, behetik abisatuko dizuet, eta zuek egin salto.

Beste abisurik gabe salto egin nuen: bidea txirrista bat bezalakoa zen. Bidea gogoratzen saiatu nintzen, baina luzea zenez ideia bertan behera geratu zen. Halako batean lurrera erori nintzen eta buila egin nien besteei, ondo nengoela jakinarazteko. Minutu batean denak beheran ginen, biribil formako gela ilun batean. Mugikorretako linternak piztu genituen.

—Nondik joango gara? —galdetu zuen Anak.

—Begira, han ate bat dago —erantzun zion Garazik.

Eta halaxe zen: gela ilunaren beste aldean inken hieroglifikoez josita zegoen harrizko ate handi bat zegoen. Aurrera joan ginen eta, atearen parera iritsitakoan, bakarrik ireki zen: korridore estu eta luze bat zegoen gu itxaroten.

Barrura sartu ginen eta niri han barruko egonaldia jasanezina egin zitzaidan. Baina, halako batean, bukaeran geunden.

Korridoreak gela erraldoi batera ematen zuen; nire etxea bost aldiz kabitzen zen han. Gelaren bukaeran milaka pertsonen esku-markak zeuden:

—Paititi eraiki zuten gizonen esku-markak dira —esan nuen.

—Guauuuuuuu!—bota zuen Andonik.


—Agian, palanka horri emanda... —esan zuen Garazik, eskuen eskuinaldean zegoen palanka seinalatuz— altxorra agertuko da.

Orduan, Ana palankaren ondora joan zen eta beheraka eman zion indarrarekin. Gero gertatutakoa harrigarria izan zen: gela dena dardaraz hasi zen, lurrikara bat balego bezala. Gure azpiko lurra erori egin zen eta bitxiz eta urrezko txanponez beteta zegoen plaza antzeko batera erori ginen. Ezin nuen sinetsi: altxorra aurkitu genuen!

—Eta, zer egingo dugu altxorrarekin? —galdetu zuen Anak.

—Niregatik lehenago hemendik aterako beharko genuke —erantzun nion.

—Ados nago —erantzun zidan Garazik.



Einer Aranguren

Andoni lanpetuta zegoen ahal zituen txanpon denak hartzen. Denon artean txanponak uztera behartu genuenean, irteera bat bilatzen hasi ginen. Plazaren ezker aldean ate bat zegoen. Hara joan ginen eta atea ireki genuen, irteera izango zelakoan.

Ateak Machu Picchuren beheko aldean utzi zigun, eta, korrika, amarengana joan ginen. Amari dena esplikatu genion eta berak Peruko Inken Museora deitu zuen.

Jende asko etorri zen Paititi ikustera. Gu telebistakoek elkarriketatu gintuzten eta, sari bezala, bakoitzari altxorretik gauza bat hartzen utzi ziguten. Nik urrezko txanpon txiki bat hartu nuen, gure abentura gogoratzeko. Andonik esan zuen:

— Jope! Gauza bat bakarrik! Altxorra guk aurkitu dugu-eta!

Uste dut Andonik gauza bat baino gehiago hartu zituela; baina kontua da, hantatik aurrera, gure kluba oso ospetsua egin zela. Mundu guztiak eman nahi zuen izena. Oraintxe bertan klubean ikastola osoa dagoela uste dut!

Hemendik aurrera mundu osotik bidaiak egitea erabaki dugu laurok, gure planetako altxorrak bukatu arte.

Oier Amilibia



Markel Otaegi


Desioen putzua

Jarraian Samuel izeneko mutiko baten istorioa kontatuko dizuet. Samuel Sevilla inguruko herri bateko umea zen. Bere familiak tomate negutegi handiak zituen. Samuelek txikitatik lagundu zien guraso eta aitona-amonei negutegian, izan ere, gustuko zuen bere familiaren lana, eta bere ametsa zen, heldua izandakoan, bere familiaren negutegia handitzea. Hala ere, urteak bete ahala, ohartu zen amets hori betetzea ez zela erraza izango. Etxean gurasoen negarrak entzuten zituen; negozioaren beherakada zela-eta, herritar asko hirira mugitzen ari ziren lan bila. Beraz, hamabi urte betetzean, gurasoek Sevillara bidali zuten Samuel, izeba-osaben etxera, han ikasteko eta bizitza hobea izateko.

Samuel Sevillan pozik bizi bazen ere, familia eta herria faltan bilatzen zituen. Gainera, bazekien gurasoak laguntza beharrean zeudela. Beraz, hiriko kaleetatik lan bila hasi zen. Udara beroa zen han, baina berdin zion. Egun batean Fermin izeneko mutiko euskaldun bat ezagutu zuen. Fermin eta bere familia estropadak ikustera jaitsi ziren Sevillara, eta familiak, Samuel bakarrik ikusita egiten zuen beroarekin, gonbidatu egin zuten berekin joatera. Hotelera iristean, Ferminen bainujantzia eman zioten, harekin igerilekura joateko jolastera. Fermin imajinazio handiko mutila zen eta biak, beren amets eta ilusioekin bizi zirenez, oso ongi konpondu ziren. Samuelek bere historia kontatu zion, eta Ferminnek esan zion bazekiela nola lagundu.

Ferminnek bere aitonak kontatzen zion istorioa kontatu zion Samueli. Ferminen aitona-amonak baserrian bizi ziren eta, handik gertu, mendiaren tontorrera iritsi baino pixka bat lehenago, putzu txiki bat zegoen. Fermin asko joaten zen aitona-amonengana, izan ere, gurasoek lana izaten zuten eta bertan pasatzen zituen opor-rak gehienetan. Aitonak animaliak zituen baserrian eta berak gustuko zuen haiekin jolastea eta aitonaren istorioak entzutea. Baina bazen istorio bat berezia zena: desioen putzuaren istorioa.

Desioen putzua putzu magiko bat zela esaten zuen Ferminen aitonak, eta horren arrazoia ondorengo istorioa zen: 200 bat urte lehenago, putzu haren ondoan, etxe eder bat omen zegoen, eta han familia handi bat bizi zen. Aita merkataria zen eta, beraz, asko bidaiatzen zuen, eta haren anaia arduratzen zen familiaz eta baserriko lanaz bera kanpoan zen bitartean. Lau seme eta alaba bat zituen. Neskaxa zen gazteena eta aitaren aingerua zen. Mara izena zuen. Aitak bidaiara joaten zen bakoitzean, Mara egunero-egunero joaten zen putzura. Harri bat hartu, muxu eman eta aita salbu bueltatzeko eskatzen zuen. Ondoren, harriari berriz muxu eman eta putzura botatzen zuen. Urteak joan eta urteak etorri, bidaiak bakoitzean gauza bera egiten jarraitu zuen, aita etxera itzultzea nahi zuen-eta. Baina Mara handitzen joan zen eta jendeak esaten zuenari gero eta garrantzi handiagoa ematen hasi zen. Horrela, ba, 18 urte bete zituenean, bere ohitura hori alde batera utziko



Irati Uranga


zuela pentsatu zuen, lagunek arrazoi zutela, eta ume kontuak zirela. Handik hilabete batzuetara aita bidaiara joan zen, baina ez zen itzuli. Orduan, bidaia asko luzatu zela konturatzean, ohitura zahar hura berreskuratzen saiatu zen. Urteak pasa ziren eta Mara egunero joaten zen putzura. Ezkontzeko garaia iritsi zitzaion, baina bere aita gabe ez zuen ezkondu nahi eta, horregatik, egunean hiru aldiz joaten hasi zen putzura eta, harriekin batera, kartak botatzen hasi zen, negar malkoak masailetan behera zihoazkion bitartean. Handik hiru astetara aita etxera iritsi zen; kontatu zuenez, hainbat arazo izan zituen bidaiari eta kartzelan bukatu zuen. Mararen aita etxera iritsi zen egunetik herritar guztiak, beren desioak betetzeko, putzura joaten dira, eta han, Marak egin zuen bezala, kartak eta harriak botatzen dituzte.

Samuel istorioarekin txundituta geratu zen. Ez zekien egia izango zen ala ez, baina saiatu beharra zuela erabaki zuen. Beraz, Fermini eskatu zion berarekin eramateko. Gurasoek ez zuten istorio horretan sinesten; baina, mutikoari lagundu nahi ziotenez, beren gurasoekin hitz egin eta, estropadak bukatu ondoren, berekin ekarri zuten etxera. Hilabete oso bat pasa zuen egunean bi aldiz putzura joaten eta putzuan neskata bat ezagutu zuen: Mara. Orduak pasatzen zituzten putzuaren ondoan hizketan eta maitemindu egin ziren. Baina Samuelek bazekien oraindik umea zela eta Sevillara bueltatu behar zuela udara amaitzean.

Beren istorioa, ordea, ez zen han amaitu. Samuel etxera itzuli zen, familiako negozioan lanean jarraitzen zuten eta beherakadarik ez zuten izan, baina hobekuntza handirik ere ez zuten sumatu. Samueli familiak ematen zion indarra handia zen eta irudimen eta ilusio handiko gaztea zen. 18 urte betetzean, Euskal Herrira itzuli zen eta Ferminen familiak berriz etxean hartu zuen. Ikasketak bukatu bezain laster, enpresa bat ireki zuen Ferminekin batera, eta posible izan bezain azkar Euskal Herrira ekarri zuen familia, bizimodu lasai eta hobe eman nahian. Enpresa aurrera ateratzeko ahalegin handiak egin zituen eta, urteak aurrera, enpresa handitzen joan zen. Bide horretan, ordea, ez zen bakarrik izan Samuel: Fermin lagun mina eta familia zituen, baina baita putzuan ezagutu zuen neskata hura ere, Mara. Bien bizitzek berriz topo egin zuten putzuan, Samuel herrira iristean, eta konturatu ziren berena ez zela umeen maitasuna bakarrik izan. Bien arteko konfiantzak, hainbat urteren ostean, berdin jarraitzen zuela ohartu ziren.

Beren bizitza gogorra izan bazen ere, ikasi zuten, elkarlanari eta maitasunari esfortzua gehituz gero, edozer lortu daitekeela.

Aitzol Carrera




Josune Freire

Maitasun katea

Txiki-txikitatik hasi nintzen ni maitatzen,
gurasoetatik hasiz,
eta lagunetan amaitzen.
Lehen dena erraza zen,
baina orain gauzak ari dira zailtzen.
Lehen denek maite ninduten;
orain, berriz, nire bihotza ari dira hausten.
Horregatik nire bihotza dago orbainez beterik
eta laguntza eskatzen.
Toki guztietatik ari da
nire beldurra zabaltzen.
Berriz ere iritsiko da momentua
norbait hasten zaidana gustatzen,
eta berriz pasa beharko dut
pasatako mina lehen.
Maite nauen norbait iritsi arte,
kate hau puskatzen.

Nora Bereziartua



Naia Orzaiz

Formaz aldatu

Formaz aldatu nahi nuke,
haizea bezain arina izateko,
haizea bezain aske ibiltzeko.

Formaz aldatu nahi nuke,
itsasoa bezain lasaia izateko,
itsasoa bezain zabala bihurtzeko.

Formaz aldatu nahi nuke,
zerua bezain argia izateko,
zerua bezain ederra egoteko.

Formaz aldatu nahi nuke,
dohain horiek guztiak edukitzeko.

Formaz aldatu nahi nuke,
behingoz ni izateko.

Nahia Stafa



Candy Ostolaza

Tasmaniako deabrua

Bazen behin Jack izeneko mutil bat. Estatu Batuetako etxalde pobre batean bizi zen bere lagunekin eta familiarekin. Gaztearen ametsa Tasmaniako deabrua izeneko animalia ornodun arraro bat ikusi eta etxera ekartzea zen. Baina gurasoek ez zioten uzten animalia hura etxean sartzen eta, beraz, bere ametsetako animaliari txabola bat egitea erabaki zuen etxe ondoan. Txabola hura egiteko eta animalia bilatu munduan zehar bidaiatzeko, lagunak behar zituen eta bi topatu zituen, plana gustatu zitzaizkien: batek Stephen izena zuen eta besteak, berriz, James. Stephen aparta zen animalia eta landare arriskutsu eta pozoitsuak antzematen eta bereizten. James, berriz, ez zen ezertan oso iaioa, baina munduan zehar bidaiatu nahi zuen eta berekin joaten erabaki zuen.

Pare bat hilabete pasatu ondoren, hiru lagunek gurasoekin hitz egin zuten, ideia egokia ote zen eta egin ahal izango ote zuten galdetzeko eta hiru lagunei, zorionez, baiezkota eman zieten. Lehenik beren ametsetako animalia etxe edo bizilekuan pentsatzen hasi ziren.

—Tira, mutilok... Hasteko, egurra bildu behar dugu, egur asko, eta ahalik eta azkarren —esan zuen Jackek

—Nik zuhaitzak moztu eta ekarriko ditut —esan zuen Stephenek ilusio handiz.

—Nik Stephenek moztutako zuhaitzen adarrak zatitu eta bilduko ditut —gehitu zuen Jamesek.

—Nik, orduan, etxolaren planoak egin ditzaket, ezta? —galdetu zuen Jackek.

—Bai, ideia ederra. Horrela, etxola muntatzerakoan, ideiak garbiago izango ditugu —erantzun zuen Stephenek.

Esanda bezala, bakoitzak bere lanari ekin zion. Jamesek adarrak zatitu behar zituen; baina, horretarako, Stepheni itxaron behar zion. Denbora ez galtzarren, Stepheni lagundu zion zuhaitzak garraiatzen. Jacken lana planoak egitea zen, baina ez zuen inoiz egin eta ez zekien nola.

Gogoratu zen bere osaba arkitektoa zela eta hari eskatu zion laguntza. Baina Jacken osaba beren herrixkatik lau ordutara bizi zen eta ez zekien nola iritsi hara. Azkenean, hurrengo goizean goiz jaiki eta oinez egin zuten hiru abenturazaleek bide luze hura. Ilunabarrerako lortu zuten iristea. Jacken osabak bost minututan egin zituen planoak; gainera, bat baino gehiago egin zituen, gogokoena zutena aukera zezaten. Osaba zintzoak bere etxean lo egiten utzi zien hiruei, gauez bueltatzea arriskutsua zelako.

Egun pare bat beranduago hiru lagunak elkartu ziren betiko lekuan. Jackek planoak zituen eta beste biek, egurra ongi moztu eta prestatuta. Muntatzen hasitakoan...

—Mutilak! Arazo bat dugu! —esan zuen Jamesek histeriko.

—Zer da, ba? —galdetu zuen Jackek kezkatutik.

—Torlojuak behar ditugu muntaketarako! —erantzun zuen Jamesek

Ez zeukaten torlojurik erosteko dirurik; baina, burdindegiko gizona oso pertsona ona eta eskuzabala zenez, bost torloju eman zizkien. Hala ere, gutxiegi ziren.

—Torloju gehiago behar badituzue, bi egunetan egin beharko duzue lan nire ordeiz —esan zien burdindegiko gizonak.

—Ongi da, egingo dugu, ba! —esan zuen Jamesek goibelduta.

Azkenenean, tratua itxi eta han geratu ziren hirurak bi egunez lanean, bazkaltzera eta lotara etxera joanez. Bigarren eguna amaitzerako, jabea etorri zitzaien hauxe esanez:

—Tira... segi ezazue eta har itzazue behar dituzuen torloju guztiak.

—Eskerrik asko!

Azkenean, lortu zuten etxola muntatzea.

Orduan zetorren gogorrena: Tasmaniara joateko dirua biltzea. Dirua lortzeko egin zezaketen gauza bakarra ikazkinarentzat egurra moztu eta hari ematea zen. Ikazkinak tratua onartzea lotu zuten:

—Eguneko bakoitzari 50\$ emango dizkiot lanaren truke. Bestela, ez dago traturik. Ados?

—Bai, bai... jakina!

Bidaiarako bakoitzak 350\$ behar zituen eta, beraz, astebetez lan egitearekin nahikoa zuten. Egunak etorri egunak joan, azkenean lortu zuten bakoitzak 350\$ biltzea eta oso gustura zeuden hiru laguntxoak. Herrixkara hilabetean behin etortzen zen hegazkina eta itxaron beharra izan zuten 17 egunez. Egun horiek oso luzeak izan ziren; baina, azkenean, iritsi zen eguna. Motxilak prestatu eta hantxe joan ziren zuzenean Tasmaniara egun eta erdiko bidaia luze baten ondoren.

—Tira, iritsi gara!

—Bai, baten garaia! Orain animaliaaren bila joan beharko!—esan zuen Jackek oso alai.

Mutilek dena pentsatuta zuten: lehenik, hango zoo bateko atzealdera joan ziren. Hantxe zegoen Tasmaniako deabruen gunetxo eta, inguruan inor ez zebilela ziur-

tatutakoan, hesiari zuloa egin eta beren ametsetako animalia hartu zuten. Buelatzeko hegazkinaren zain pare bat egun itxaron ondoren, animaliatxoa motxilan sartuta itzuli ziren.

Beren herrixkara bueltatzean...

—Zer izen jarri diezaiokegu? —galdetu zuen Stephenek.

—Baaaa...

—Ideia bat bururatu zait! —esan zuen Jamesek.

—Esan, esan...

—Gaur izarraren eguna denez, Izar izena jar diezaiokegu. Ongi iruditzen? —proposatu zuen Jamesek.

—Niri hamarreko ideia iruditzen zait —esan zuen Jackek.

—Orduan, Izar, ezta? —galdetu zuen Stephenek.

—Bai!

Azkenean, Tasmaniako deabrutxoa Izar izenarekin geratu zen.

Unai Sarasua



Franshesca Paez

Lurraren amaiera

Eta buuuuuuummm... Lurra lehertu egin da. Dena bukatu da. Malko bat erortzen nabaritu dut nire begitik. Hemen gaude, espazioan, espazio-ontzi erraldoi batean. Badirudi inor ez dela benetan jabetu Lurra lehertu egin dela. Denak pozik daude beren espazio-ontzi berriarekin. Beren asmakuntzarik hoberena dela diote.

2200. urtean gaude. Ni jaio nintzenetik Lurra oso kutsatuta zegoen, baina azken urteetan okertzen joan zen. Petrolio gutxi zegoen eta, denek nahi zutenez, gerra bat sortu zen. Ni presidente baten alaba naiz, Estatu Batuetako presidentearen alaba. Saiatu nintzen berarekin hitz egiten, gerra gelditu zezan; baina ez zidan entzun nahi izan.

Duela urtebete hasi zen dena. Aitak ez zuen beste ezertaz hitz egiten: petrolioia falta zela, ezingo genuela bizi, ez zuela onartuko geu bakarrik geratzea petrolio gabe... Baina, azkenean, notizia on bat iritsi zitzaion: Afrikako leku batean petrolioia aurkitu zuten. Baina, jakina, ez ziren izan bakarrak eta denek nahi zuten petrolioia... inor ez zegoen prest bere herrialdea izan zedin petroliorik ez zeukan bakarra.

Denek nahi zuten petrolio hura, eta gerra hasi zen,

Toki guztietatik botatzen zituzten bonbak, gas toxikoak... Hilabete batzuk pasatu ondoren, zuhaitzak hiltzen hasi ziren, animaliak gaixotzen, jende pila bat hiltzen, izugarritzko beroa egiten zuen eta gero elurra hasten zen, tsunamiak zeuden, sumendiak sortu ziren...

Denok nabaritu genuen mundua lehertzera zihoala, eta nik aitarekin hitz egitea erabaki nuen.

—Gelditu ezazu gerra, mesedez —eskatu nion.

—Ezin dut, eta ia nazkatu nauzu gai honekin, Kaitlyn! Segi zure gelara, mesedez.

—Ez. Ez duzu ikusten mundua gaizki dagoela? Zer egingo dugu desagertzen denean? —galdetu nion, pazientzia galduta.

—Lasai, Kaitlyn! Espazio-ontzi bat ari naiz prestatzen.

—Nola? Lurra honela utzita joan egingo gara? —esan nion haserre.

—Bai. Eta joan zure gelara oraintxe. Hau ez da zure arazoa, eta ez hitz egin horrela inoiz gehiago, entzun duzu?

—Ba, ez! Ez naiz joango zuk gerra hau gelditu eta mundua konpontzen saiatzen zaren arte.

Barre egin zuen, eta gero bi zaintzaileei deitu zien, ni neure gelara eramateko. Nire indar guztiekin borrokatu nintzen zaintzaileekin; baina ni baino indartsuagoak ziren eta nire gelan sartu ninduten. Baina nik ez nuen etsi. Zer uste zuen nire aitak, utzi egingo niola berak nahi zuena egiten? Ba, ez! Ez nion utziko.

Gauean, zaintzaileak nire gelako ate ondotik joan zirenean, atzeko atetik atera nintzen jardinera, eta gero korrika joan nintzen ahalik eta urrutien.

Alarma martxan jarri zen, eta etxeko argi guztiak nola pizten ziren ikusi nuen. Baina nik korrika jarraitu nuen. Eroritako etxe zahar batean egin nuen lo, izkina batean.

Hurrengo egunean ibiltzen jarraitu nuen, eta hurrengoan, eta hurrengoan... Herri suntsituak ikusi nituen, pertsona hilak, animalia hilak, mendi kiskaliak... Eta ikusten nituen animalia zaurituak sendatzen saiatzen nintzen. Batzuk hil egiten ziren, baina beste batzuk bizirik irauten zuten. Pertsonekin ere berdin egiten nuen, eta sendatzen ziren pertsona eta animaliak nirekin etortzen ziren. Aurrera segitu genuen, beste batzuk aurkitu eta laguntzeko. Negar egiten genuen; baina, batez ere, elkar zaintzen genuen. Baina gero eta jende gutxiago geratzen ginen. Denak hitzen joan ziren eta, gainera, mundua oso gaizki zegoen. Egin genuen bidaia luzean bi zuhaitz bakarrik ikusi genituen, eta oso itxura txarra zuten. Arnasa hartzea zaila zen, temperatura izugarri aldatzen zen, usain oso txarra zegoen, zakarra zegoen alde guztietan...

Egun batean, atsedena hartzen ari ginela, nire aitaren armada etorri zen. Maskarak zituzten aurpegian, eta hodi batzuetatik oxigenoa hartzen zuten. Tiroka hasi ziren nire lagunei, animalia eta pertsoneri. Denak negarrez, oihuka ari ziren. Ni izkina batean geratu nintzen eta begiak eta belarriak tapatu nituen. Geroago konortea galdu nuen.

Gela txukun batean esnatu nintzen, garbi-garbi. Gela txiki bat zen eta leihotxo bat zuen. Leihotik begiratu eta nola aireratzen ginen ikusi nuen. Ikusi nuen nola nire lagunek begiratzen zioten espazio-ontziari, eta nola beste lagun asko lurtean hilda zeuden. Negarrez, korrika atera nintzen gelatik eta nire aitarengana joan nintzen.

—Kaixo, Kaitlyn! Zer moduz? Azkenean lortu nuen petrolio, eta espazio-ontzi hau martxan jartzea lortu genuen. Lasai, barkatzen dizut joan izana.

—Barkatzen didazula? Ba, nik zuri ez! Mundua suntsitu duzu!

—Niri horrela ez hitz egin! Mundu berri bat egingo dugu, zu ez kezkatu. Ordaindu dutenei sartzen utzi diet, nirekin zorretan daude.

Korrika joan nintzen espazio-ontziko atera, baina bi zaindariak hartu ninduten eta eserleku batean lotuta utzi ninduten. Hemen nago ni, ikusten nola munduko

jende aberatsak disfrutatzen duen mundua lehertzen ikusten. Baina nik ezin dut gehiago, ezin dut jasan, eta botoi gorriari sakatu, eta atetik salto egin dut espaziora. Orduan, meteorito erraldoi bat espazio-ontziaren kontra joaten ikusi dut.

Orain bai... orain dena amaitu da.

Maxe Zinkunegi

Kopa


Kopa batekin egin nuen topa,
topa arriskutsu baina erakargarria.

Oso hauskorra zen kopa,
hain arin eta mingarria.

Kopa barrura egin nuen oka,
Harek zuen odol zapore larria.

Kopa harrek utzi ninduen jota,
Kopak zapaltzen du orain nire hilerria.

Olatz Aizpurua



Malen Albeniz

Kaixo, maitea!


Kaixo, maitea!

Zu ikusteko gogoz nago betea,
ikaragarria izan zen zurekin hilabetea,
laztanez josi nuen zure ilea,
hortzekin harrapatu nuen zure ezpain tarteak,
gauero gogoratzen dut zure ahots mehea.

Askotan sentitzen dut zure musuen beharra,
zure besarkada goxoen indarra...
Batzuetan ateratzen zait negarra,
zurekin pasako nuke egunero ilunabarra.

Zure begi marroi eta ilunak,
zure esku fin eta leunak...
Zu gabe egunak egiten zaizkit astunak.
Zu ikusteko gogoak jango ditu nire barruak.

Sara Mujika



Alaine Garro

Egun grisa

Udazkena zen. Goiz goizetik kaleak bustita agertzen ziren azaroko gau-eurien ondorioz. Zuhaitzetako hostoak pixkanaka-pixkanaka lurrera erortzen ere hasiak ziren adarrak biluzik utzita. Alarma-hotsa entzun nuen nire belarriaren ondoan eta begiak ireki nituen. Ohe ertzean eseri nintzen eta eskuak aurpegira bota nituen, makarrak begiak igurtziz kentzeko. Bat-batean amak gelako atea ireki zidan eta pertsianak igo zituen zeru hodeitsua erakutsiz.

—Egun on, Lander. Mugitu, ikastolara berandu iritsiko zara bestela.

—Bai, ama! —esan nuen gogorik gabe.

10 urteko mutil ilehori argal arrunt bat nintzen. Eskailerak jaitsi nituen eta hantxe ikusi nuen, egunero bezala, aita betaurrekoak jantzita egunkaria irakurtzen. Nire aita ez zen asko hitz egiten duten gizon horietakoa. Egunero gauza bera egiten zuen: goizean egunkaria irakurtzen zuen gosaltzen zuen bitartean; eta, ondoren, autoa hartu eta lantegian sartzen zen. Bulego batzuetan egiten zuen lan. Azkenik, etxera ni jada ohean nengoen orduetan ailegatzen zen eta, segituan, bera ere ohera joaten zen. Horregatik, ez nuen harreman handirik berarekin, goizetan soilik ikusten bainuen bost minutuz astean zehar.

Ez nituen helduak ulertzen; beti lanean ari ziren robotak ziruditen.

Ama, aldiz, beti ikusten nuen. Bere lantegiko nagusiak enpresatik bota zuenetik nitaz haurdun egoteagatik, beti etxean egoten zen bertako lanak egiten. Alde batetik errudun sentitzen nintzen.

Gosaldu nuen, motxila hartu nuen, eta kalera atera nintzen. Klean deseroso sentitzen nintzen. Ume guztiak beren lagunekin batera joaten ziren ikastolara, irribarrea ahoan zutela. Nik, aldiz, ez nuen lagunik, eta inor ez zen niregana hurbiltzen. Beraz, ikastola ere gorrotatzen nuen. Ume gaiztoak nirekin sartzen ziren, nik ezer egin gabe.

Hiru minutuz betiko ibilaldia egin nuen ikastolaraino. Eraikineko atetik sartu eta hark beste mundu bat zirudien. Dena kolorez beteta zegoen: paretak, eskaileak... Gelako atea zeharkatu nuen orduan.

—Kaixo, Lander! Eseri zaitez zure lekuan —esan zidan Aitor maisuak.

Gelan banaka zeuden kokatuta mahaiak. Horrek bakardadeari eta bazterkeriari atea guztiz irekitzen zien nire kasuan. Ez nuen lagunik eta, beraz, inork ez zuen gogorik nire inguruan esertzeko. Ez nuen distrakziorik eta, horregatik, klaseetan arreta jartzen nuen eta, ondorioz, nota onak ateratzen nituen. Agian, horretxegatik gorrotatzen ninduen jendeak ikastolan.



Larraitz Lopetegi

Jolas-ordua iritsi zen. Txirrin-hotsa. Umeak garrasika. Patiora joan nintzen eta, inork ez ikusteko moduan, izkina batean jarri nintzen. Sudurra gorritu zitzaidan telebistan ikusi nuen pelikulako elur-oreinari bezalaxe. Berehala sumatu nuen hotz handia egiten zuela eta eskuak poltsikoetara eramane nituen. Nire gauzetan pentsatzen ari nintzen baloi batek nire zapatak jo zituen arte. Hasperen egin nuen eta nire hantsa ikusteko gai ere izan nintzen egiten zuen hotzagatik.

—Aizu! Bai, zu, mutil arraro hori! Pasa baloia! —oihukatu zuen mutiko batek.

Futbolean zebiltzan. Niri, ordea, kirolak ez zitzaizkidan hainbeste gustatzen. Baloia begiratu nion, makurtu nintzen, hartu nuen bi eskuekin eta pasa egin nien.

—Ja, ja! Ikusi al duzue? Neskak bezala egiten du! —egin zuen barre mutiko hark—. Etor zaitez hona, Lander!

Mundu guztia niri begira jarri zen. Paralizatuta geratu nintzen; izan ere, jendeak inoiz ez zidan aurpegira begiratu ere egiten. Orduan konturatu nintzen jada ez nuela elur-oreinaren antzik, tomate batena baizik! Gorri-gorri jarri nintzen lotsaren lotsaz. Ez nekien zer egin eta, beraz, mutikoarengana hurbildu nintzen azkenean.

—Kaixo, Lander duzu izena, ezta?

—Bai

—Zer? Ez dizut entzuten.

—Bai!

—Ongi da. Ni Markel naiz eta orain erakutsi inguruko jende guztiari nola pasatzen duzun baloia.

—Ez

—Zer? Altuago hitz egiteko!

—Ez dudala nahi!

—Nola?

Momentu hartan Markel niregana gerturatu zen. Aurpegiak aurrez aurre gennituen eta kamisetako lepotik heldu zidan. Ez banuen egiten, jo egingo ninduela esan zidan ahapeka. Ez nintzen gai sentitu nire burua defendatzeko eta baiezkoa eman nion.

Baloia pasa nuen begiak itxita eta hortzak estutuz, amorru osoarekin, eta berehala barrez ari zitzaizkidan pertsona guztiak nola isiltzen ziren sentitu nuen. Lehenengo begi bat ireki nuen. Gero bestea. Kaka! Markeli eman nion buru

erdian! Burua erritmo motelean jiratu zuen eta ni nengoen lekura begiratzen geratu zen.

—Zer arraio egin duzu, ergel halako hori!

—Barkatu, Markel. Nahigabe izan da.

—Nola izango zen, ba, nahigabe? Ukabilkadarik nahi?

—Ez

—Nahita egin duzu, txorora! Ikusi egin zaitut!

—Ez zeunden-eta niri begira.

—Borroka nahi?

—Ez, mesedez.

Orduantxe muturreko bat eman zidan masailean eta lurrera erori nintzen, sudurretik odol jario.

—Ikusten? Hau gertatzen da kontra egiten didazuenean! —esan zuen Markelek. Harrotasuna sumatzen zitzaion ahotsean.

Ezin nuen etsi. Lurretik altxa nintzen. Markel niri bizkarra emanda zegoen. Bi toke egin nizkion sorbaldan. Burua jiratu zuen momentuan, ukabilkada bat eman nion. Ez dut gezurrik esango, lasaitu ederra hartu nuen. Borroka. Liskarra. Haserrealdia. Bata bestearen gainean jotzen. Jendea joaten hasi zen, gauzak ondo ez zuela bukatuko ikusi zutenean. Dibertigarria egiten zitzaien ahularekin sartzen ari zirela ikustea. Baina joan egin ziren.

Orduan, Aitor maisua eta ikastolako zuzendaria Markel eta ni banatzen saiatu ziren. Azkenean, zuzendariaren bulegoan bukatu genuen biok. Aitorrek gure gurasoei deitu zien eta berehala iritsi ziren. Etxera eraman gintuzten. Nik uste nuen gauza konponduko genuela, baina ez zen horrela izan.

Etxera iritsi ginen. Atea zabaldu nuen eta egongelako sofan jesarri nintzen.

—Zer gertatu da, Lander?

—Ezer ez, ama.

—Beraz, aurpegiko ubeldura hori bakarrik atera zaizu, ezta?

—Ez da hori.

—Beraz, zer gertatu da?

—Markel eta biok borrokan hasi garela besterik ez.

—Ondo al zaude, Lander?

—Bai, ama.

Eta nire gelara joan nintzen. Ohe gainera bota nintzen eta negarrez hasi nintzen. Oroitzapenak burura etorri zitzaizkidan eta, orduan, aitona Patxi irudikatu nuen ospitaleko ohean.

Aitona oso gaixo zegoen; izan ere, biriketako minbizia zuen. Amak askotan esana zion, gaztea zelarik, erretzeari uzteko, baina aitona kasurik ez. Orduan hasi ziren ondorioak. Aitona egiten zuen aitaren papera ni txikia nintzenean, aita lanean izaten baitzen denbora guztian. Oso garrantzitsua bilakatu zen niretzat handik aurrera eta, ospitalean sartu zutenetik, beti bisitatzeko nuen. Aste guztia horretarako itxaroten egoten nintzen, ospitalera joateko, ez beste ezertarako. Orduan amarengana jo nuen.

—Ama! Goazen ospitalera, aitona beharra dut!

—Baina, Lander, astelehena da.

—Ez du garrantzirik. Eraman nazazu ospitalera!

—Ongi da, Lander; ongi da.

Autoan sartu, nire eserlekutxo gorrian jarri eta segurtasun uhala lotu nuen, amak beti gogorarazten zidan bezala. Ospitalera iritsi ginen. Jada banekien aitona gela zenbakia: 464. Amak atzetik zetorren eta atea jo nuen bitan.

—Aurrera —esan zuen ahots baxu batek.

—Aitona!

Berarengana joan nintzen eta musu erraldoi bat eman nion masailean. Hanka-puntetan jarri behar izan behar nuen. Gaizki sentitzen nintzen bakoitzean aitonaekin lasaitzen nuen barrena. Den-dena botatzen nuen eta aitona beti aholkuren bat edo beste xuxurlatzen zidan. Kasu honetan Markelen istilu osoa kontatu nion.

—Zer? Tontolapiko hori nire bilobarekin sartu dela? —eztulka hasi zen—. Lander, entzun iezadazu. Ez du inporta desberdina izateak; alderantziz, izugarria da. Zuk bihotz ona duzu eta hori da garrantzitsua. Etorriko dira estimatuko zaituzten pertsona garrantzitsuak zure bizitzan. Fidatu zaitez nitaz. Gauzak ezin dira borrokatzen konpondu. Erabil ezazu hitza beti. Ez dute jakingo beren ekintzak arrazoitzen. Zuk, aldiz, hitz egiteko gaitasun handia duzu, erakusten ez baduzu ere. Nik ondo dakit.

—Ongi da, aitona! —eta malko bat erori zitzaidan masailean beheara. Banekien-eta aholku askoz gehiago ez nituela izango. Aitona pixkanaka joaten ari zen, baina nik eutsi egin behar nien arazo horiei, aitona beti esaten zidan bezala.

Hurrengo egunean ikastolara joan nintzen eta banku baten gainean zutitu nintzen jolas-orduan.

—Aizue! —eta mundu guztia nire inguruan jarri zen—. Entzun, badakit hemengo askok ez duzuela jakingo nor naizen ere, baina Lander dut izena. Agian, jakingo duzue lehengo eguneko liskarragatik. Kontua da ez dudala lagunik. Zergatik? Desberdina naizelako? Eta zer? Nik ez diot inori minik egiten. Aitzitik, jendea nirekin sartzen da arrazoirik gabe. Pase bat *gaizki* egin dudalako? A, zer arrazoa! Ez dakizue zuen burua justifikatzen egin dituzuen gauza txarrei buruz ari garenean. Zuentzat arraroa izan naiteke ikasgelan, jangelan, ikastolara bidean, jolas-orduan bakarrik egoten den mutil hori naizelako. Baina, agian, mutiko hori da laguntza behar duena eta lagunak egin behar dituen eta bazterkeriarekin hori ez da konpontzen, nik dakidanez. Laburtuz, esan nahi dizuet ahul eta ez-ahul edo delako bereizketa hori guztiz ezabatzea dela bide bakarra. Denok pertsonak gara.

Txalo bat. Bi. Hiru. Txalo zaparrada. Berriro masailak gorritu zitzaizkidan, baina esandakoaz harro sentitu nintzen. *Zugatik, aitona!* pentsatu nuen eta bankutik jaitsi nintzen. Gelakideak nigana hurbildu ziren eta egindakoaz damututa zeudela aipatu zuten denek. Ez nindutela baztertu behar, alegia. Markel eta bere lagunak, aldiz, izkina batean geratu ziren. Inork ez zien begiratzen. Jada ospe moduko hura galdu zuten. Gelan jendea nire ondoan esertzen hasi zen.

Hurrengo goiza heldu zen. Gosaltzen nuen bitartean, ateko txirrinak jo zuen.

—A, zer arraroa! —esan zuen amak, kopeta zimurtuz.

Atea ireki zuen eta nire gelako Uxue zen. Ea nirekin ikastolara joatea zeukan galdetu zion amari.

—Jakina baietz, laztana —erantzun zion amak.

Bizkar-zorroa hartu, eta han joan ginen Uxue eta biok kaleetatik barrena ikastolara. Amari inoiz ikusi nion poztasun aurpegirik handiena geratu zitzaion. Handik aurrera, gauzak ikastolan aldatu egin ziren onera. Jada ez nintzen bakarrik sentitzen.

Malen Albeniz

Bidaia

Bazen behin Iwan deituriko 21 urteko gazte bat. Zimbabweko iparraldean kokaturiko Kariba herrian bizi zen, Zambiarekin mugan, bere familiako kide guztiekin batera. Gazte ameslaria zen; bere bizitza helburuz betea zeukan, baina bere herrialdean gauza ezinezkoak ziren gehienak. Zimbabwen diktadura gogorra jasan behar zuten herritarrek; ez zuten askatasunik nahi zutena egin ahal izateko, eta ezta beren eskubideak aldarrikatzeko ere. Denak beldurtuta bizi ziren, arrazoirik gabe espetxeratzeko arriskua baitzegoen beste hainbat gauza beldurgarriren artean. Iwan horrekin kontzientziatua zegoen; baina, halere, ez zituen bere ametsak atzean utzi nahi.

Egun batean Rahmat izeneko mutil bat ezagutu zuen. Rahmat herrian gaizki ikusia zegoen, bere gurasoak protestatzaileak zirelako eta biak espetxeratuak izan zirelako beste 26 lagunekin batera, manifestazio batean parte hartzeagatik. Egun hartatik Rahmatek ez zuen gurasoen berririk izan eta, aurrera segitu ahal izateko, lan bila hasi zen. Lantegi askotan ezezkoa ematen zioten, bera ere protestatzailea izango zen beldurragatik; baina, azkenean, Iwanen lantegi berean amaitu zuen. Rahmatek. Hasiera batean, entzungor egiten zion Iwanek esandakoari; baina, apurka-apurka, bien arteko harremana estutzen joan zen eta, denbora baten buruan, banaezinak egin ziren.

Rahmatek, Iwanen antzera, hainbat amets zituen betetzeko, eta Frantziara alde egin nahi zuen, horiek bete ahal izateko. Gainera, elkarren artean adiskidetasuna baina zerbait gehiago zegoen eta jendea horretaz ohartzen hasi zen. Homosexualitatea debekatuta zegoenez, eta beren ametsak bete nahi zituztenez, plan konplexu bat prestatzen hasi ziren biak, bertatik alde egiteko. Benetan egiteko zaila zen: lehenengo, Afrika osoa gurutzatu behar baitzuten; bigarrenik, Marokon paper faltsuak eta patera bat lortu; hirugarrenik, Espainiara sartu eta gurutzatu; eta laugarrenik, Frantzian sartu. Gauzak horrela izanda, kontaktuak bilatzen hasi ziren. Zortez, Abiatha izeneko lagun bat mugimendu horietan zebilen lanean eta berehala lortu zuten Marokora iristeko bidea. Lagunak esportazio kamioi batean aurkitu zien lekua, eta izen bat eman zien, hara iristerakoan galdetzeko.

Pare bat asteren buruan prest zeuden biak Karibatik alde egiteko. Iwani ez zitzaion xamurra egin agur esatea, Rahmat, berriz, gogotsu zegoen herri hura atzean utzi eta bizitza berri bat hasteko. Abiathak esandako kamioira igo ziren biak eta hamar egunen buruan iritsi ziren Marokora. Han gizon bat zuten itxaroten eta hark hurrengo egunetan beren etxea izango zen pentsio batera eramane zituen.

Biak oso gustura zeuden. Behingoz, aske sentitzen ziren. Halere, nahiz eta bietako inork ez onartu, beldur ziren, oso beldur. Hurrengo goizean paper faltsuak

egiten zituen gizonarengana jo zuten, eta hark, azken orduan beste bezero batzuek haien enkargua ezeztatu zutelako, beren paperak momentuan bertan eman zizkien. Biak pozez zoratzen zeuden, urrats bat gehiago eman zutelako egiteko konplexu horretan eta uste baino lehenago izango zirelako European.

Pateran joan ahal izateko, bakoitzak 1.000€ ordaindu behar zituen, eta ez zuten batere espero hain garestia izatea. Halere, Abiathak beherapen bat lortu zien eta 750€ sarrerako ordaindu beharko zuten. Biak lanean ibili zirenez, 1.000€ aurrez-tuak zituzten; baina, beste 500€ lortu ahal izateko, lan bila hasi ziren. Arrantza barku on batean eman zuten izena eta, hilabete eta erdi batean lan eginda eta bien irabaziak batuta, txartela erosteko adina diru lortu zuten.

Bi hilabeteren buruan biak patera batean eroso jartzen ari ziren, beste hamabost pertsonarekin bakarrik zihoazelako. Egia esan, zortea izan zuten, normalean hogeita bost bat pertsona sartzen zirelako pateran eta denak estu-estu joaten zire-lako. Itsasora abiatuta, bidelagun asko oka egiten hasi ziren zorabioarengatik. Batzuek odola ere botatzen zuten eta, ondorioz, ezin zuten ez jan eta ezta edan ere. Iwanek eta Rahmatek, berriz, ez zuten horrelako eragozpenik izan, aurreko bi hi-labeteetan itsasoaren mugimendura ohitu zirelako.

Bigarren gauean haize bortitz batek olatu handi eta indartsuak sortu zituen eta paterako lagun batzuk uretara erori ziren. Pateran zeudenak eroritakoei laguntzen hasi ziren gorantz tiratuz; baina, ustekabea, Rahmati tira egin zioten eta uretara erori zen. Uretara bota zuenak heldu egin zion, ez itotzeko; baina Rahmatek ere ez zekien igerian. Rahmatek ezin zuela arnasa hartu ikusita, Iwan laguntzen saiatu zen; baina, ordurako, Rahmatek konortea galdu zuen eta hondoratzen hasi zen. Iwanek ezin izan zuen ezer egin laguna salbatzeko eta inpotentziaz betetako malko tristeak isuri zituen bi begietatik. Hamar pertsona geratzen ziren pateran eta inork ez zuen hitzik esan Espainiara iritsi arte.

Gau iluna zen, behe-lainoz betea, eta hotz handia egiten zuen. Iwanek kale bazter batean lo egin zuen, kartoiz inguratuta, eta hurrengo goizean autobuseko sarrera hartu zuen Madrilera joateko. Autobusa iritsi bitartean, sekula ikusi gabeko janari apur bat erosi zuen; bai jan ere! Handik ordu erdira autobusera igo zen. Oso harrituta zegoen; izan ere, lurralde hark ez zuekan bere herriaren antzik batere. Bidaian behin eta berriz oroitu zen Rahmatez eta, batzuetan, ezin izaten zion negarrari eutsi. Hark ezingo zituen bere ametsak bete, baina bera hil izanak zer-baitetarako balioko zuela zin egin zuen Iwanek.

Zazpi orduren bueltan Madrilen zegoen, eta han ere kalean egin behar izan zuen lo. Goizean, Pariseko treneko sarrera erostera joan zenean, ikusi zuen sarrerak 84€ balio zituela, eta berak 10€ besterik ez zituen. Beraz, berriz ere lan bila hasi zen. Madrilen itsasorik ez dagoenez, ezin zuen arrantza bapora batean izena eman eta, azkenean, mekanikako lantegi batean onartu zuten.

Hilabete baten ondoren, 534€ zituen eta, beraz, txartela erosi eta Parisera abiatu zen. Hamabost ordu eta gero iritsi zen Parisera. Han beltz asko ikusi zuen, eta lasaigo sentitu zen. Pentsio batean hartu zuen ostatu eta, egun berria hastearekin batera, bera ere lan berri baten bila hasi zen. Orduan ez zitzaion aurrekoetan bezain erraza egin lana aurkitzea eta pentsiora itzuli zen. Hango sarrerako emakumearekin hizketan hasi zen. Zimbabwe kolonia ingelesa izan zenez, ingelesez nahiko txukun moldatzen zen eta berehala ulertu zuten elkar. Andreak leku batzuen izenak eman zizkion, han lan eskaintzak zeudelako eta, bi aldiz pentsatu gabe, haietako batera jo zuen. Bertan pertsona helduak zaintzeaz arduratzen ziren eta, pertsonal faltan zirenez, berehala onartu zuten Iwan. Iwan poz-pozik zegoen, hurrengo egunean lanean hasten zelako eta, ospatzeko, kalean mokadu bat jan eta pentsiora joan zen.

Biharamunean, goizeko 06:00etan esnatu behar izan zuen 07:00etan hasten baitzen lanean. Lanera iristean, Adeline izeneko lankideak azaldu zizkion egin beharreko denak. Ez zen lan zaila, baina pazientzia handia behar zen heldu haiek gustura izateko. Astearen bukaerarako guztiz integratua sentitu zen lanean eta, behingoz, bere bizitza baloratzen hasi zen.

Urtebeteren buruan 13.000€ inguru batu zituen, eta berak ere ezin zuen sinetsi horrenbeste diru zuenik. Lehenengo bere familiari bidali zien dirua, haiek ere ahalik eta erosoan bizi ahal izateko. Eta, ondoren, unibertsitate publiko batean Arte Ederrak ikasteko eskaera egin zuen. Onartu zutenean, lanean lanaldi erdia hartu zuen eta, behingoz, modako arropa erosi zuen.

Unibertsitateko lehen egunean haur txikien moduan sentitzen zen. Urduri zegoen; baina, bestalde, pozez eta ilusioz betea. Lehen klasean —hau da, Artearen Historia eta Teorian— Alexandre izeneko mutil baten ondoan eseri zen. 24 urte zituen, azal argia eta begi marroi ilunak. Kontatu zionaren arabera, ama portugaldarra zuen eta aita frantsesa. Oso mutil adeitsua eta eskuzabala iruditu zitzaion eta, beraz, bere bizitzaren hainbat gauza kontatu zizkion, baina ez etorkin bat zela, lotsa ematen baitzion hori onartzeak. 16:00etan klase guztiak amaituak zituen eta lanera abiatu zen. Bertan ez zuen inongo gorabeherarik izan eta halaxe joan zitzaizkion asteak eta hilabeteak.

Arte Ederretako lehen kurtsoa bukatzerako, Alexandre eta Iwan mutil lagunak ziren. Elkarrekin hainbat momentu eder bizi zituzten eta gehiago bizitzeko gogoaz zuten; baina elkarren ondoan, elkar zaintzen eta elkar maitatzen. Behingoz, Iwanen bizitzak benetako zentzua hartu zuen. Behingoz, haren ametsak betetzen ari ziren. Eta, behingoz, bere kontzientzia lasaitzen hasi zen.

Iwanek ez du sekula gertatutakoa ahaztuko, ez baitzen bere herritik alde egiteko bidaia soil bat, bere bizitza bizitzen eta baloratzen erakutsi zion esperientzia baizik. Bestalde, Rahmat ere ez du inoiz ahaztuko, hura izan baitzen haren lehen amodioa. Gaur egun Iwan pozik bizi da Frantzian Alexandrerekin eta beren hiru

umeeekin. Hirurak Zimbabwetik adoptatu zituzten, ez baitzuten nahi inork Rahmaten amaiera bera izatea, edota Iwanen bakardadea sentitzea. Iwanek Alexandreri zor dio dena, Rahmat hil eta gero berriz ere maitatzen irakatsi baitzion.

Miren Genova

Gure bizitzaren bidea

Nire inguruko mundua,
traizioen eta maitasunaren mundu hau...
Jaiki eta nire ingurura begiratzen dut,
ikusten dudan guztia zentzuzkoa da.
Nire bizitzako bide luzean urratsak egiten hasten naiz,
hori guztia hain polita ez dela ohartzen naizen arte...

Lagundu nahi zaituen jendeak ez dizu beti laguntzen;
agian, egia mingotsak bizitza hondatzen dizu...
Zer egin dezakezu zuk horren aurka?

Lo egin gabeko gauak... Gertatzen jarraitu ezin zaizkizun egoerak...
zure barnean dagoen traizioa...
Ez dituzu begiak ireki nahi, sentitu ahal duzunaren beldurrez.

Momentu askotan galdetzen diozu zure buruari ea
zergatik utzi diozun ihes egiten eduki nahi duzunari?
Azkenean, ondorioztatzen duzu
maite duzuna balioetsi behar duzula alde egiten utzi baino lehen.
Azken finean... inozoarena egin ez bazenuen,
dena iraganekoaren berdina izango baitzen...

Zure inguruari irribarre batekin begiratzen diozu,
baina zure bizitza inoiz baino okerrago dago...
Gauetako malko bukaezinak,
dena ahazteko hainbat aukera bilatzen saiatzen zara...
baina ezetz esaten diezu koldarkeria ekintzei!

Zuk badakizu gertatu zen guztiaren ondoren,
atzera egin eta dena berriro hasiz gero,
konfiantza ez zela existituko eta bata besteari kalte bakarrik egingo
zeniotela...

Istorio honen amaiera nabaritzen duzu, nahiz eta arazoa konponezina
irudit...
Nahiz eta zure bihotzak kasu egin nahi ez dizun...
Benetan behar duzun pertsona aurkitzean, tristura desagertu egingo
dela
eta zure bihotza berriro ere zutaz fidatuko dela.




Maitane Zinkunegi

Beraz, ikusten duzu koldarra izatea ez dela hartu dezakezun bide bat,
ezpainetara iritsitako malkoak denborarekin lehortuko direla,
eta malko horiek guztiak, denborarekin, oroitzapen bat soilik izango
direla,
pertsona berriaren eta bihotzaren laguntzaz ahaztea lortuko duzuna.

Gaur berriro ere esnatzen naiz
nire aurpegian alde batetik bestera islatutako irribarre batekin...
berriro ere ilusioa berpiztu zaion pertsona baten antzera...
Maite nauten pertsonekin eta huts egingo ez duten pertsona horiekin
ez baitut bi aldiz harri berdinarekin behaztopa egingo.

Nahia Altuna



Rosa Atorrasagasti

Zelako maltzurra maitasuna!

Egunero zutaz oroitzen naiz.
Egunero nire barruko tximeletak esnatzen dituzu,
baina ez egunero pozik,
jakina dugulako
zuk beste lore bat maite duzula.

Nire burua gogorra den bezala,
nire bihotza ere bai,
biak daude beti borrokan
zure bihotza lortu arte.

Ezin dudala bizi
zure itzala ikusi gabe;
baina, ikusten zaitudanean,
ezin ezer esan...
nire ahoa mutua da.

Lotara noa,
zutaz oroitzen
eta lo nago
zurekin amesten.

Mendira joan,
sekulako lorea aurkitu,
denen artean politena,
une hartan berarekin
berriro gogoratu,
buelta eman
eta han bera,
nire zain...
Gerturatu nahi eta lortu dut,
baina negarrez hasi naiz,
ametsa, ametsa izan baita.

Egunero ikusten dut eguzkia,
egunero ikusten zaitut,
egunero nire tripak gogortuz,
egunero negar egiten dut.

Nire ezpaineak
zure ezpain beroen nahia dute.
Ezinezkoa izan arren,
nire erraiak borrokan daude
zure musu bat lapurtu arte.

Diote amestea librea dela,
maitasuna gerora polita dela;
baina
debekatuta,
debekatuta egon beharko luke
bitartean,
bitarte nerabe honetan
honela bizi behar izatea.

Alba Moreno

Maiene

Bazen behin Orion bizi zen 16 urteko neska bat, Magali izenekoa. Magali oso neska ameslaria zen, beti zeukan burua beste planeta batean, edo hori esaten zioten behintzat bere lagunek. Soinean beti koaderno bat zeraman, eta bertan kalean ikusitako objektu arraroak marrazten zituen. Urtearen bukaeran bildutako objektu guztiekin planeta bat irudikatu nahi zuen. Nahiz eta denek ikusi egunero koaderno hura, inork ez zekien zer zegoen bertan.

Bere gelakide batzuk oso pertsona arraroa zela pentsatzen zuten. Hainbat gauza desatsegin esatera ere iritsi ziren batzuk beragatik. Beti atzetik hitz egiten zuten, gaizki; inoiz ez zioten, ordea, aurpegira ezer esaten. Baina berak ez zien jaramonik egiten. Bera zen bezalakoa zen eta ez zegoen prest inork bere izateko era aldatzeko. Bere lagunek eta ingurukoek onartzen zuten bitartean, ez zuen ikusten aldatzeko arrazoirik.

Eguna kalean pasatzen zuen, berdin zitzaion bakarrik ala lagunekin, baina kalean ibiltzea gustatzen zitzaion eta ezohiko objektuak marraztea egunero. Bere koaderno ez zen oso handia, baina nahikoa orri zituen Magalirentzat.

Gauero, etxera joatean, ordura arte jasotako marrazki guztiak begiratzen zituen eta bere planetatxoa gutxi gorabehera irudikatzen hasten zen. Baina, nahiz eta egunero marrazki berriak bildu, gauero gatazka bera izaten zuen bere buruarekin: beti zerbait falta zitzaion, ez zegoen nahikoa objektu.

Goiz batez esnatu eta kalera irten zen objektu berrien bila. Herri osoan barrena ibili zen, baina ez zuen zorte handirik izan. Etxera itzultzea pentsatzen ari zen momentuan, denda berezi bat ikusi zuen. Talyaani zuen izena. Inoiz ez zuen halako dendarik ikusi eta bertan sartzea erabaki zuen. Sartu bezain laster, gauza harrigarriak ikusten hasi zen, ez ziruditen mundu honetako gauzak. Liluratuta zegoen, ez zekien nondik hasi marrazten. Bat-batean, bere adin inguruko mutiko bat agertu zitzaion:

—Egun on, lagun al zaitzaket?

—Kaixo! Egia esan, galdera bat egin nahiko nizuke: dendaren aurretik pasatzen ari nintzen eta oso denda berezia dela ikusi dut... Ireki berri duzue, ezta?

—Halaxe da, bai! Nire familia heldu berria da Oriora, eta atzo arratsaldean ireki genuen denda.

—Zein ongi! Ongi etorri Oriora!

—Eskerrik asko! Nire izena Abel da.

—Ni Magali naiz.

—Zerbait nahi zenuen, ala begiratzera besterik ez zara etorri?

—Bueno, hasiera batean begiratzera etorri naiz... Arreta eman dit dendak eta sartzea erabaki dut.

Pare bat minutuz egon ziren elkarrekin hitz egiten eta Magalik etxera joan behar zuela esan zion Abeli, baina hurrengo egunean itzuliko zela, denda hobeto begiratu nahi zuela-eta.

Biharamunean, Abel denda irekitzen hasi bezain laster agertu zen Magali bertan eta sartzera gonbidatu zuen. Mutikoak berehala ikusi zuen aurreko eguneko koa-dernoa soinean zeramala. Jakin-min handia sartu zitzaion, eta honela galdetu zion:

—Aizu, Magali... Atzo ikusi nuen koaderno bat zeneukala zurekin, eta gaur ere zurekin duzu... Beti soinean eramaten al duzu?

—Egia esan, bai! Ez naiz inoiz koadernorik gabe irteten kalera.

—Eta zer dago bertan, jakin badaiteke?

—Ba, koaderno honetan kalean ikusten ditudan objektu arraro eta harrigarri guztiak marrazten ditut. Horregatik sartu nintzen atzo denda honetara, ezohiko gauzak dituzuelako, beste lekuetan aurkitu ezin diren gauzak.

—Itzela! Baina zertarako behar dituzu marrazki horiek guztiak?

—Inori ez diot orain arte esan zergatik eta zertarako ditudan marrazki hauek; baina zuri kontatu diezazukedala sentitzen dut. Hara, beti esan ohi didate neska oso ameslaria naizela, burua beste nonbait edukitzen dudala, beste planetaren batean bezala. Horrenbeste aldiz errepikatu ostean esaldi hori, neure buruari galde-tu nion ea nolakoa izango ote zen beste planeta hori eta, beraz, erabaki nuen neure planeta irudikatzea.

—Hori bai dela harrigarria! Niri ere esan ohi didate burua beste nonbait dudala, baina inoiz ez zait bururatu nire planeta irudikatzea. Nahi baduzu lagun diezazuket planeta irudikatzen. Dendan dugun guztia erakutsiko dizut, eta biontzat egingo dugu planeta, ongi iruditzen?

Magali aho zabalik geratu zen mutikoaren erantzunarekin. Beste edonori kon-tatu izan balio, erotzat hartuko zuket; baina Abelek, ez. Abel berezia zen, esaten ari zitzaiona ulertzen zuen, bizi zuen.

—Nigatik primeran! —adierazi zion adostasuna Magalik.

—Ederto! Goazen biltegira, han gauza gehiago daude hemen baino.

Berehala joan ziren biak biltegira, zer topatuko zuten irrikatan. Abelek gauza piloa ateratzen zion Magaliri, eta hark ez zekien nondik hasi marrazten... Dena zen harrigarria eta dena hain ezohikoa...

Orduak eta orduak pasatu zituzten objektuak marrazten eta hitz egiten: nolako planeta izan zitekeen, zein koloretakoa izatea nahiko luketen eta abar. Abelek esan zion denda itxi beharra zeukala; baina, nahi izanez gero, hurrengo egunean itzultzeko, bere zain egongo zela.

Hurrengo egunean, esnatu bezain pronto prestatu zen Magali Abel ikustera joateko; baina ohartu zen koadernoan falta zuela eta asko ikaratu zen. Gela osoa arakatu zuen koadernoaren bila, dena hankaz gora jarri zuen, baina alferrik izan zen, ez baitzuen inondik aurkitzen. Bitartean, Abel dendan zegoen Magaliren zain, bezeroren bat sartu orduko begiratzen zuen ea Magali ote zen; baina, zoritxarrez, ez zen bera.

Magalik amore eman zuen eta Abelen dendarantz abiatu zen. Heldu zenerako, Abelek galdua zeukan Magali etorriko zen esperantza eta, ikusi zuenean, pozez txoratzen jarri zen. Magalik azaldu zion gertatutakoa, eta Abelek esan zion aurreko egunean biltegian ahaztu zitzaion motxilan egon zitekeela koadernoan.

Ziztu bizian abitu zen Magali biltegirantz motxilaren bila eta, Abelek esan bezalaxe, motxilaren barruan zegoen koadernoan. Izugarrizko poza hartu zuen, eta jarraian galdetu zion Abeli ea objektuak marrazten jarraitu zezakeen; hark baietz erantzun zion, eta horri ekin zioten.

Bata marrazten ari zen bitartean, bestea objektuak ateratzen ari zen eta, halako batean, ispilu bat aurkitu zuten. Ispilua marrazten hasi zen Magali. Bertan Abel eta bera ageri ziren eta, gainera, koadernoaren azken orrialdea zen hura. Koadernoan bete zutela ikustean, erabaki zuten hurrengo egunean geratu eta planeta irudikatzen hasiko zirela. Honela, bata denda ixten hasi zen eta bestea etxerantz abiatu zen.

Gau hartan Magalik dei bat jaso zuen. Abel zen. Antza zenez, bere familiaren dendak ez zuen irabazirik ematen, jende asko etortzen zen ikustera, baina oso jende gutxik erosten zuen zerbait, denda museotzat hartuko balute bezala. Beraz, Abelen gurasoek beste herri batera joatea erabaki dute zorte gehiagoren bila.

Magalik ezin zuen sinetsi entzuten ari zena, zer egin behar zuen orain? Bere lagunik onena galduko zuen ezer egin ezean!

—Jendeak museo bezala ikusten badu zuen denda, zergatik ez museo bat jarri?

—Ezinezkoa zaigu hori Magali. Nik ere horixe bera esan diet gurasoei; baina, esan didatenez, museo bat jartzeko baimen bereziren bat edo behar da. Gainera, erabakia hartuta dute jada. Berandu da. Ezin dezakegu ezer egin.

—Eta dendan saltzen duzuen generoa aldatzen baduzue? Denda guztiz ezberdina jarritz gero?

—Barkatu, baina ezin dugu ezer egin. Gure eskuetan zegoen guztia egin dugu Orion geratzeko, baina aukerak agortu zaizkigu dagoeneko.

—Eta...

—Sentitzen dut benetan, baina joan beharra daukat.

—Baina, Abel...

—...

Ez zegoen erantzunik telefonoaren beste aldean. Eskegita zegoen. Magalik pena handia hartu zuen, bere lagunagatik ezin baitzuen ezer egin. Horretan pentsatzen ari zen bitartean, bere motxilan objektu distiratsu bat zegoela ikusi zuen. Gerturatu eta motxilatik atera zuen. Giltza bat zen, eta ohar bat zuen lotuta.

Honela zioen oharrak:

Magali, asko sentitzen dut. Espero dut lagunak izaten jarraituko dugula. Noan lekura noala ere, idazten ahaleginduko nahiz, eta kontaktuan jarraituko dugu. Zin egiten dizut. Joan baino lehenago, oparitxo bat utzi nahi nizun: giltza hau gure dendaren giltza da. Bihar goizean pasatu zaitetz handik, biltegian duzu zure oparia zure zain. Ez atsekabetu, eta ez ahaztu inoiz nitaz, ni ez bainaiz inoiz zutaz ahaztuko.

Laster ikusiko garelakoan nago!

Abel

Abelen oharrean zioen bezala, goizean Magali dendara joan zen. Biltegiraino sartu eta han zeukan mutikoaren oparia zain. Koadernoaren azken orrialdean marraztu zuen ispilua zegoen bere begien aurrean. Ez hori bakarrik, Abelek eginiko marrazki bat ere bazegoen. Magali eta Abel ageri ziren marrazkian. Elkarrekin zeuden, pozik. Baina, batez ere, elkarrekin. Berehala konturatu zen Magali ez zela marrazki hori Abelek utzi zuen gauza bakarra ispilua uzterakoan. Ispiluak Maiene zuen idatzita ertz batean, eta beste ohar bat zeukan itsatsita.

Zure planeta zu zauden lekuan hasten da. Jendeak nahi beste aldiz esango dizu beste planeta batean zaudela. Egia da. Beti, zauden lekuan zaudela eta nagoen lekuan nagoela, beti egongo gara elkarrekin. Gure planetan: Maienen.

Abel

Magalik eta Abelek ez zuten gehiago elkar ikusi, ez zuten berriz hitz egiteko aukerarik izan; baina Magalik, bere lagunak joan baino lehen utzitako ispilua ikusten zuen bakoitzean, Abelez oroitzen zen eta dendan pasatako momentu itzel guztiez. Gainera, beti sentitzen zuen norbait zuela bere ondoan, gau eta egun; ez zegoela inoiz bakarrik. Ispilua, Maiene, Magali eta Abelen arteko lotura bat egongo balitz bezala. Ispiluaren aurrean jartzen zenean izaten zuen, batez ere, sentimendu hura, Abel inoiz guztiz joan ez zenaren sentimendua.

Elene Ostolaza

Zoriak erabakiko du

Ohean esnatu naiz. Alboetara begiratu dut, eta gela zuri bat ikusten dut. Nire buruari begiratu diot, eta ospitaleko oihalek estaltzen nautela ikusi dut. Zer egiten dut ospitalean? Ez dut ezer gogoratzen. Gelan erloju digital bat dago. Haren zenbakiak goizeko laurak eta hamazazpi direla esaten dute. Kopetaren ezker aldean mina sentitzen dut. Eskua atera dut oihalen azpitik eta, zauria ukitzera koan, min handiagoa sentitu dut. Baina, zergatik dut nik zauri hau? Zer gertatu zait? Orain oso nekatuta nago, begiak itxiko ditut. Beranduago izango dut denbora nire iraganari buruz galdetzeko. Orain, gorputzak lo egitea eskatzen dit. Eta hori egingo dut.

Berriz ireki ditut begiak. Erlojuari begiratu diot eta goizeko hamarrek direla adierazten du. Alboetara begiratu dut. Emakume bat dut aldamenean. Ez dut ezagutzen; baina, begiak irekita ditudala ikusi duenean, korrika joan da gelatik medikuei esatera. Berehala bi pertsona etorri dira. Erizain batek Sara izena du. Nola dakit hori? Bere bularrean du ospitaleko plaka. Besteak, aldiz, ez du plakarik bularrean. Erizaina izango al da? Ez dut uste. Begiak irekita ditudala ikustean, negarrez hasi da. Baina zein dira hauek? Zergatik ez dut nire iraganari buruzko ezer gogoratzen? Hobe izango da medikuen esku uztea. Berek emango didate jakin behar dudana informazioa.

Esnatu naizenetik jendea gelara sartzen eta irteten ikusten dut, etengabe. Hasierako emakumea, aldiz, denbora guztian nire aldamenean dago, segur aski gertuko norbait izango da, familiako kide bat edo lagun bat. Hala ere, ez naiz ezertaz jabetzen ari, oraindik kopetako zauriak mina egiten dit.

Ordu erdi igaro ondoren, mediku bat etorri da nigana. Orain hasi naiz nire iragana gogoratzen eta gertatu zitzaizkidan ulertzen. Ni Lucia naiz, 22 urte ditut eta Donostian jaio nintzen. Abenduak 31 zen guztia gertatu zenean. San Silvestreko lasterketa ikusi nahi nuen; baina, korrika egingo ez nuenez, mendira joatea erabaki nuen goizean, lagun batekin. Itsaso aldera begiratu nuen batean, harri batekin estropezu egin nuen eta labarretik behera erori nintzen. Ez da oso labar altua, baina hankekin erori beharrean, buruan golpe bat hartu nuen eta kontzientzia galdu nuen. Istripu horren ondorioz, bi hilabetez egon naiz koman. Ondoa dudana emakumea nire ahizpa da, Andrea, eta berarekin dagoen gizona berriz nire lagunik onena, Markel. Medikuek esan dit behaketa gunean egon behar dudala bi gauetz, baina segituan igoko nautela geletara. Froga guztiak ondo ateratzen badira, bi aste igaro ondoren etxera bidaliko nautela esan didate. Ea horrela den. Etxera joateko gogoia dut, eta nire lagun eta familiarekin galdu dudana denbora berreskuratu. Egun

hauek oso luzeak egingo zaizkit, baina ez dut beste aukerarik. Beraz, berriz begiak ixtea erabaki dut, etxean esnatzeko itxaropenarekin. Helduko da momentu hori.

Bost hilabete pasa dira nire istripua gertatu zenetik. Lagunek esan didate egunerokotasunetik deskonektatzeko, ondo etorriko zaidala. Beraz, Maldiva uharteetara joatea erabaki dugu. Aste betez, Donostiako estresetik ihes egingo dugu. Ez zait gaizki etorriko.

Maleta egin dut. Nahiz eta Euskal Herrian euria egin, uharte horietan sekulako beroa egingo du. Beraz, udako arropaz bete dut maleta. Galtza motxak, tirantedun kamisetak, eta behar beharrezkoa: bikiniak. Gure hegazkina bihar irteten da Madriletik, goizeko bederatzieta, eta beraz, trena hartu behar dugu gaur gauean Madrilera joateko.

Gaueko hamar eta erdietan irten gara Donostiatik, eta iritsi gara jada Madrilera. Goizeko laurak dira, eta lo egitea pentsatu dugu. Biharko eguna oso gogorra izango da eta deskantsatu egin behar dugu. Lo hartu baino lehen, emakume bat ikusi dut. Sentsazio arraro bat izan dut: emakume horrek dei bat izango du laster, eta emango dioten berria ez zaio batere gustatuko. Nire buruak bakarrik hitz egiten du. Zer gertatzen zait? Bidaia luzea izan da eta, agian, oso nekatuta nagoen seinale bat da. Horregatik, begiak ixtea erabaki dut. Baina zerbaitek harritu nau. Begiak itxi eta bost minutura negar zotinak entzun ditut. Emakume hori da, negarrez ari da, gelditu gabe. Nola iragarri dut nik hau? Auskalo. Kasualitatea izango da. Ez diot garrantzi handirik emango. Orain lo egitea da garrantzitsua.

Iritsi da eguna eta fakturatu ditugu mailetak jada. Hegazkinean sartzeko ordua da. Bat-batean irudi batzuk etorri zaizkit burura. Gure hegazkinak istripu bat izango du. Ezin du izan! Zer egingo dut? Atzo gauza bera gertatu zitzaidan, eta pentsatzen nuena egia bihurtu zen! Ezin dugu hegazkin horretara sartu hil nahi ez badugu! Nire lagunei esan diet. Asko kostatu zait haiek konbentzitzea; baina, azkenean, ez gara hegazkinean sartu. Harrigarriena eguerdian gertatu da. Etxera bidean, albisteak irakurtzen egon naiz, eta hartu behar genuen hegazkinak istripua izan duela irakurri dut.

—Ei! Lagunak! Irakurri ezazue albiste hau!

—Zer gertatzen da, Lucia?

—Irakurri, mesedez! Gure hegazkinak istripua izan du!

—Ezin da izan —esan du Mariak.

—Baina zer gertatu da? Nola? —galdetu du Markelek.

Biak zur eta lur geratu dira. Nola iragarri dut hau? Koman egon nintzenetik zerbait aldatu da nire barnean. Hala ere, zerbait arraroa sentitzen dut oraindik. Gu ez ginen hegazkinean sartu eta, beraz, heriotzatik ihes egin genuen. Orain, istripu horretan hil ez ginenok mendeku bat jasoko dugu. Hori sentitzen dut. Etxera iristean, ikertzen hasiko naiz.

Albistegiak entzun ditut. 120 bidaiariak hil egin dira hegazkin istripuan. Gu bakarrik irten gara bizirik. Nire pentsamenduak egia badira, norbait gure bila dabil, gu hiltzeko asmoarekin; baina hori ez da gertatuko. Zerbait gertatuko zaigula susmatzen dudanean, nire lagunak salbatu behar ditut. Eta hala egingo dut, gure heriotza bilatzen duen pertsona aurkitu arte.

Oso gau txarra pasa dut eta orain negarrez nago. Zergatik? Oso erraza. Mariaren, nire lagunaren hilketa amestu dudalako. Ez da hori bakarrik. Ametsa egia bihurtu da. Eta nik ez dut ezer egin. Baina gauza batez konturatu naiz. Egin ditudan amets guztietan hiltzailea ikusi dut. Lehen ametsa aireportuan izan zen, telefonoz ari zen emakume harekin. Bertan hiltzaileak eskumuturreko bat zuela ikusi nuen, urdina. Hegazkinean sartu behar genuenean, aldiz, hiltzailea ikusi nuen motorrak manipulatzeko. Amets hartan belarritako bat duela ikusi nuen, ezkerreko belarrian; urrezko belarritakoa, hain zuzen ere. Azken amets horretan, Maria hiltzen duen horretan, eskuineko besoan tatuaje bat duela ikusi dut: gurutze bat.

Orain ezin dut gehiago. Ezin dut Maria hil dutela sinetsi. Ezin dut bera gabe bizi. Nire bizitzako zati garrantzitsuenetarikoa da. Baina nire tristuratik irteten ez banaiz, Markel hil dezakete. Ez dut nahi hori gertatzea. Markel lagun bat baino gehiago ikusten dut. Nirekin etorkizunean egongo den pertsona hori da. Ezin dut bera hil dezan utzi. Eta nahiz eta oso gogorra izan Mariaren galera, honekin amaitu behar dut, heriotzak gu guztiokin amaitu baino lehen.

Markeli deitu diot. Eskerrak ondo dagoen. Hala ere, nire etxera etortzeko esan diot. Nahiago dut nirekin egotea bera bakarrik egotea baino. Gutxienez, segurua-
go egongo da nirekin.

—Markel, ezin dut gehiago. Maria nola hil duten ikusi dut. Gu hurrengoak gara.

—Baina zer esaten duzu, Lucia? Zer gertatzen zaizu?

—Ez dakit, Markel. Koman egon nintzenetik gauza arraroak sumatzen ditut nire gorputzean. Ikusi ditudan hilketa guztietan hiltzailearen zati bat ikusi dut. Bere bila joan behar dugu, berak gu hil baino lehen.

—Lucia, lasaitu zaitez. Ez al da hobe poliziari guztia kontatzea?

—Ez, Markel. Poliziak jakin baino lehenago hil egingo gaitu. Hau gure kasa konpondu behar dugu.

Leihoak hautsi dira. Norbait etxean sartu da. Ezin dut sinetsi. Markel ikusiko dudan azken aldia izango al da? Baliteke. Hala ere, ahal dudan guztia egingo dut. Bestela, hurrengora arte, Markel.

Begiak ireki ditut. Gela batean nago. Ez dut inor ikusten. Ohe baten gainean nago. Segituan, builaka hasi naiz. Gauza bat aurkitu dut, ordea, nire eskuineko eskuan. Paper bat. Zerbait dauka idatzita. Buila egiteari utzi diot, eta irakurtzen hasi naiz:

Hau guztia gobernuak egin du, Lucia. Berek prestatzen dituzten hilketak ikusten dituzulako. Ihes egitea lortu dut. Psikiatriko batean zaude. Eroa zaudela esango dizute. Ez egin kasurik. Ez dute nahi zu bezalako norbait kalean ibiltzea, hori da kontua. Ahal dudanean, zure bila etorriko naiz, ez egin zalantzarik. Bitartean, ahal duzun gutxien hitz egin medikuekin.

Maite zaitut.

Markel

Segituan gorde dut papera. Mediku bat sartu da gelara. Ez da edozein mediku; izan ere, eskumuturreko urdina du, urrezko belarritakoa darama ezkerreko belarrian, eta besoan gurutze bat du tatuatuta...

Irati Vivas



ORIOKO UDALA

Euskaraz
bizi-bizi

